

KUBAKO MISILAK: Krisiaren 60. urteurrenak gerra nuklearraren arriskua ekarri du gogora > **4**

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Arrastoa uzten duten urteurren esanguratsuak **IÑAKI ALTUNA > 11**

2022ko urriaren 22a | XVI. urtea • 796. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



GANBARAKO ZIRRIKITUETATIK

BERTSOAREN KARTZELA ZEN LEHEN, BERTSOAREN GANBARA DA ORAIN. EZKUTUAN ZEGOEN LEHEN, EZKUTUAN DAGO ORAIN. PENTSATZEKO TOKIA DA, BAKARKAKO ARIKETARAKO PRESTATZEKO. FISIKOKI ALDATU EGIN DA, TOKI GERO ETA GOZOAGOA DA. MAMIZ EZ DA HAINBESTE ALDATU. JENDAURREAN SINADURARIK PROPIOENA ERAKUTSI AURREKO ATARI ISILA DA > **12**

Raul BOGAJO | FOKU



8



17



Misilen krisiaren 60. urteurrenak gerra nuklearraren arriskua ekarri du gogora egunotan 04

Irangoak eta nonahikoak, suizidak ala ez, droneen gerra Ukrainan 08

Kartzelatik ganbarara: bertso txapelketetako une gorena asko aldatu da, ez izenean bakarrik 12

Pantaila Txikian: benetako gertaeretan oinarritzen diren telesailen booma 17

Ismael Manterola, Arte Ederren Fakultateko dekanoa: «Helburua ez da industria» 22

Min kronikoaren inguruko uste faltsuak aztertu dituzte 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



22



28

SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:** Biziarteko zigorraren katea hausteko zerra olioztatuz
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Agortu baino lehen
- 11 **Iñaki Altuna:** Arrastoa uzten duten urteurren esanguratsuak
- 16 **Unai Gaztelumendi**
- 20 **Itziar Elizondo:** Bizitza elikatu
- 21 **Joana Garmendia:** Fikzioa, errelatoa eta lagun minak
- 27 **Miren Azkarate Badiola:** Onddoak aldarrikapenak balira
- 27 **Antton Izagirre:** Ikastolen alde
- 30 **Olatz Perez de Viñaspre Garralda eta Ane Zelaia Jauregi:** Wikidata 10 urte



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Biziarteko zigorraren katea hausteko zerra olioztatuz

Robert Badinter abokatua Justizia ministroa zelarik egin zen frantses Estatuan espetxe politikaren gaineko benetako azken eztabaida nagusia. Bere eskutik, mugarik gabeko zigorraren logikaren aurrean birgizarte-ratzearen izpirituari helduta abagune berria hasi zen François Mitterrand presidentearen garaian. Erresistentzia handiak gainditu behar izan zituen, ordea, bere Parisko bulegora errefuxiatu estatutua berri-tzeko xedez bertaratzen ziren militante anitz, hainbat ETako kide barne, ezagutu zituen legegizonak bere bizi-tzako borroka nagusia aurrera ateratzeko.

Erresistentzia handiak antzeman zituen bidean, eta tribunan mintzo zelarik eraso dialektikoak ez zituen falta. Alta, hedabideetatik hasi eta kalean jarraituta gorpuztu zen mehatxu kanpainari buru eginez giza eskubideen aldeko zalgurdia bilakatu zen heriotza zigorraren abolizioari bide eman zion go-bernua. 1981eko urriaren 9ko data egindakoaren eta egiteke dagoenaren gainean gogoeta egiteko behatokia bilakatu da geroztik. Jakin behar baita heriotza zigorra ezabatu zuen herrialdean bi-ziarteko zigorra indarrean dagoela. Heriotza su txikian bezala irudikatu da sarritan muturreko zigorrak utzita-ko «hutsunea» bete zuen gaztigua.

Urriaren 13an, 32 urte eta erdi kartzelan igaro ondoren, Ion Kepa Parot ETaren 'Argala komandoko' kidea kalera atera zen. Handik bost egunetara bera bezala 2011n jar-duera armatua alboratu zuen erakundeko kidea izan zen Jakes Esnal etxera itzuli zen, urriaren 18an.

Bete beharreko biziarteko zigorra *–perpetuité réelle*, frantsesez– Zigor Kodearen 221-3 eta 4. artikuluetan jasotzen bada ere, Europako Giza Eskubideen Konbentzioari so eginez frantses justizia ate erdi irekia uztera behartuta dago, hau da, preso orori, baita delitu larrienak egin dituenari ere, askatasuna eskatzeko hautua bermatu be-

har dio. Hala ere, 2000ko lehen hamarkadaz geroztik baldintzapeko askatasuna galdetzeko eskubidea zuten bai Parot bai Esnal 32 urte eta erdiko espetxealdia bete arte kartzelan atxiki dituzte.

Kalera atera ostean, biek ala biek urtebetez eskumutur elektronikoa eraman beharko dute. Are, frantses justiziak agindutakoaren arabera, hamarkada bat gehiago itxaron beharko dute egun 71 urte duten herritarrek erabateko askatasuna berreskuratu arte.

Xehetasun horiek oroitarazi ditzagun, euskal jendar-tearen baitan zabaldutako dinamika zabal eta iraunkorra aintzat hartu gabe zailagoa, agian ezinezkoa ere bai, izanzen zelako zigor amaigabearen logikari itsatsita da-goien estatu baten adar judizialak ezarritako giltzarrapoa haustea.

32 urte kartzelan eman arren, hamarkada bat gehiago itxaron beharko dute 70 urte baino gehiago duten Haranburuk, Esnalek eta Parotek «erabat libre» bizitzeko

Preso ohia gaztetan zapal dutako karriketara itzultzen den momentua berezia da oso, familientzat bidaia neka-garri baten amaiera moduko bat irudikatzen duelako.

Alta, manifestazioetan potretetan agertzen zirenak euskal paisaia naturalki gorpuztu diren une berean, Es-tatuaren bihotzean, hegazti harrapariak Asanblea Nazio-nalaz jabetu dira berriro ere. Parisen bortizki hil zuten 12 urteko Lolaren kasuaren aurrean, emozioak sublimatze-ko hautua egin du eskuin muturrak, «benetako» amaie-rarik gabeko zigorra galdetuz. Eskerrak "Askatasun eska-eratik segurtasunaren exijentziara" elkarrizketa liburuan 2007an hainbat lanabes idatzi zituela Badinte-rrek bururatu ez den bidean jarraitzeko. •

GERRAREN ATARIAN

Misilen krisiaren 60. urteurrenak gerra nuklearraren arriskua ekarri du gogora

Kubako misilen krisiaz geroztik lehenengo aldiz arma nuklearrak erabiltzeko mehatxu zuzena dugu gauzek doazen bidetik jarraitzen badute», adierazi zuen duela bi aste Joe Biden AEBetako presidentek Ukrainako gerraren arriskuak nabarmentzeko.

«Vladimir Putin Errusiako presidentea ez dabil txantxetan», gaineratu zuen.

Propaganda gisa etsaia deabrutzeko, benetako arriskuaz ohartarazteko edo gogortasun jarrera erakusteko, bai AEBetan bai Errusian, duela 60 urte izandako gatazka nuklear globalaren arriskua ekarri dute gaurkotasunera hainbat politikarik edo militarburuk, zeharkako iradokizunen bitartez batzuetan, zuzenki besteetan.

Hain zuzen, hilabete honetan bete da 1962an apokalipsia eragiteko zorian izan zen krisiaren urteurrena. Gerra nuklearra piztetik «bost minutura» egon ziren aldi hartan.

 **KUBA /** Pablo Ruiz de Aretxabaleta

1962aren urrian mundua gerra nuklearraren atarian egon zen hainbat egunez. AEBek misil sobietarrak Kuban antzeman zituztenean erasotzeko prestatu ziren eta erasotzeaz egon ziren behin baino gehiagotan. Isilpeko hitzarmen diplomatikoak saihestu zuen gatazka, baina Kuban peoi gisa erabili izanaren sentimendua utzi zuen.

Bidenen oharra ez dira alarma bakarrak izan. Josep Borrell Europar Batasuneko ordezkari «diplomatikoak» adierazi zuen Errusiak eraso nuklear bat egiten badu «militarki hain erantzun handia emango dugu, ezen Errusiako Armada birrindua izango baita».

Jens Stoltenberg NATOren idazkari nagusiak ohartarazi zuen erakunde militar hau «alertan» dagoela eta «Errusiak jakin behar duela gerra nuklear bat ezin dela irabazi eta inoiz ez dela egin behar». Aldi berean, NATOren jarrera «disuasio nu-

klearra» dela defendatu zuen, «bere helburu nagusia beti izan delako bakea babestea eta erasoak ekiditea».

Egun batzuk lehenago NATOk ohartarazi zuen Artikoko uretan murgildu zela «K-329 Belgorod» Poseidon misil nuklearra daraman urpeko nuklear errusiarra, 'Apokalipsiaren arma' bezala ezagutzen dena.

Baina ez dago argi Errusiak torpedo hau erabat garatu duen. Gainera, Moskuk ukatu egin du Ukrainako gatazkan arma nuklearrak erabiltzea, eta AEBei eta aliatuei leporatzen

die etengabe espekulatzea gerra nuklear bati buruz, gai hori modu artifizialean berotzeko.

Hala ere, Ramzan Kadirov buruzagi txetxeniarrak «potentzia txikiko armamentu nuklearra» erabiltzeko egindako eskari irekiak ere tentsioa elikatu du.


KUBARI JAZARPENA

Halako giroa zegoen duela 60 urte munduan? Gaur bezalako gerra irekirik ez zegoen Europan. Baina bi potentzien arteko Gerra Hotza mundu osora zabalduta zen. Gatazka horren gudu zelaietako bat Kariben kokatu zen, bere ibilbide iraultzailea hasi berria zuen Kuban.

1959. urtean Iraultzak Batiaren diktadurari amaiera eman zionetik, AEBek Kubarekiko etsaitasunez jokatu zuten, uhartearen zituzten interesak galduta ikusi baitzituzten.

Gainera, mehatxu ideologiko zuzena ikusten zuten AEBek, Kubak Amerika osoari adibide arriskutsua erakusten ziolako. Halabeharrez, iraultzaileek Sobietar Batasunarekin estutu zuten harremana.

AEBetako hegazkin bat, bonbaketariak garraiatzen ari den kargaontzi sobietar baten gainetik hegana. WIKIPEDIA



Lehenengo zigor ekonomikoak 1960an agindu zituen Dwight Eisenhower presidentearen Gobernuak.

Horrela erantzun zieten AEBek Kubako Gobernuak enpresa estatubatuarren ondasunak uhartean nazionalizatzeko, produktu estatubatuarren inportaziorako muga zergak igozteko eta Sobietar Batasunarekin merkataritza harremanak ezartzeko hartutako erabakiei.

Eisenhowerrek enbargo komertzial partziala jarri zuen martxan eta Habanarekin harreman diplomatikoak hautsi zituen. Aldi berean, Iraultza-ren kontrako talde armatuak finantzatzeari ekin zion.

Bahia de Cochinosen inbasioak porrot egin eta Fidel Castrok 1961ean Kuba estatu sozialista izendatu ondoren, John F. Kennedy AEBetako presidenteak 1962an Kubarekiko merkataritza harremanen gaineko erabateko bahitura ezarri zuen –elikagaiak eta botikak izan ezik–. Orain arte iraun duen blokeo ekonomikoaren lehenengo urratsak izan ziren.

Aurretik, CIA dozenaka aldiz saiatu zen Fidel Castro hiltzen. Eta uhartea inbaditzeko planak Washingtoongo mahai gainean zeuden. 1961ean AEBek Bahia de Cochinosen lehorratzean babestutako kontrairaultzaileen inbasio saiakera galaraztea lortu zuen Kubak.

Washingtonek ez zuen amore eman eta Mangosta Operazioaren bidez, matxinada suspertu nahi izan zuen Iraultzak porrot egin zezan. Berehala argi geratu zen ezinezkoa zela barruan halako mugimendurik sortzea. Hortik aurrera, inbasio zuzena izango zen aukera nagusia. Berriro ere, babesa SESBen bilatu zuen Habanak.

Handik 10.000 kilometrorra, Turkian, AEBek ojiba nuklea-



rra zeukaten Jupiter misilak zabaldu zituzten; Moskura minutu gutxitan irits zitezkeen.

MISILAK KUBAN

Arma atomikoen lasterketan AEBak nagusitzen ari ziren garai horretan eta Moskuk Kuban misil balistikoak zabalduz erantzun zuen. Kubako Gobernuak hasieran mesfidantza izan arren, onartu egin zituen misilak. Irismen ertainarekin, 2.000 kilometrorra irits zitezkeen, Washingtoneraino.

Fidel Castrok beti defendatu izan zuen operazioa agerian egin behar zela, «nazioarteko legediaren babesarekin», legezkoa zelakoan. Hala ere, sobietarren esku utzi zuen behin betiko erabakia.

Plataformak udan iritsi ziren uhartera baina sekretua agerian geratu zen urriaren 14an. AEBen U-2 hegazkin espio baten ohiko miaketa he-

Arma sobietarra erakusgai Habanan, krisiaren oroigarri.
Olga&Konstantin | GETTY

galdiak plataformak antze-man zituen.

CIAk berehala aztertu zituen ia mila argazkitan Pinar del Rio mendebaldeko probintzian ezarritako plataformak eta beste hegaldi batzuetan lortutako argazki gehiagotan beste tokietako azpiegiturak.

Urriaren 16an, Kennedy presidenteak bere aholkulari nagusiak bildu zituen erantzuna aztertzeko. Defentsa idazkari Robert McNamarak hiru proposamen aurkeztu zizkion: Nikita Khrushxov SESBeko presidentearengana hurbildu negoziatzeko, uhartea blokeatu arma sobietarrak gelditzeko edo Kubaren kontrako eraso militar zuzena egin.

Gerra hastear egon zen lehenengo momentua izan zen.

Kennedyk bigarren aukera hautatu zuen, denbora irabaziz. Uhartea airez eta itsasoz blokeatzea agindu zuen.

SESBek Kuban zituen ordu-rako 42 ojiba atomiko eta 42.000 soldadu.

Urriaren 22an Kennedyk telebistaren bidez publiko egin zuen egoera, mezu gogor batekin, baina hitzak zainduz, Moskuren berehalako erantzunik ez pizteko.

Esan zuen galarazi egingo zuela arma gehiago Kubara iristea, baina «berrogeialdi» hitza erabili zuen, «blokeoa» erabiltzea gerra deialdia izan zitekeelakoan. Gainera, Kubaren gaineko zaintza areagotuko zuela eta Mendebaldeko edozein herrialderi eraso egitea AEBei egindako erasotzat hartuko zuela gaineratu zuen.

Egun berean Khrushxovi bidalitako eskutitzean bere oharrrak berretsi zituen eta misilen baseak eraisteko eskatu zion. Khrushxovek, bere alde-tik, armak Kubara zeramatza-ten itsasontziek aurrera jarrai-



tzeko agindu zuen, blokeoa «eraso ekintza» bat zela esanez. Baina abiadura moteldu zuten, zuzeneko liskarra saihesteko eta irtenbideari denbora emateko.

Hurrengo egunotan itsasontzi batzuk atzera bota zituzten AEBetako indarrek.

Lehenengo hegaldian plataformak aurkitu zituztenean, ez zegoen misil bat ere prest. Handik bi astera, 12 misil jaurtitzeko prest zeuden eta beste hirurogei inguru instalatzear.

Kubatarrek ere ez ziren geldirik egon. Fidel Castrok uhar-tearen inbasioaren arriskuaz ohartarazi zuen eta 300.000 lagun prestatu zituen. Arriskua benetakoa zen: urriaren 26an Kennedyk Kubari erasotzeko aukera baino ez zuela ikusten esan zien aholkulariei.

Zeharkako filtrazioen eta Khrustxoven eskutitz baten bitartez sobietarrek AEBei

adierazi zieten beste irtenbide bat izan zitekeela, gerra nuklearraren tragediaz ohartaraziz.

Orduan, AEBek martxan jarri zuten buruzagi sobietarren asmoak argitzeko ikerketa, baina Inteligentziako analisten lanak eskaintza benetakoa zela erabaki zutenean, beste eskaera bat gehitu zuen Errusiak: Turkian ezarritako Jupiter misilak ere kendu behar ziren. Eta AEBentzat hori onartzea gehiegi zen. Etsaia-

McNamarak hiru proposamen aurkeztu zituen: Khrustxovengana hurbildu negoziatzeko, uhartea blokeatu arma sobietarrak gelditzeko edo Kubari zuzenean militarki eraso egin

Castrok inbasioaren arriskuaz ohartarazi eta 300.000 lagun prestatu zituen. Arriskua benetakoa zen, urriaren 26an Kennedyk Kubari erasotzeko aukera baino ez zuelako ikusten

Misilak ezarritako tokietako baten argazkia. WIKIPEDIA

ren aurrean amore emango zutelako irudia, alegia.

Egoera nahiko okerra ez eta, Kubaren zeruan ordurako ugariak ziren U-2 espioietako bat lurrera bota zuen misil batek. Pilotua hil egin zen.

Horren ondorioz, berriro ere piztear egon zen gerra nuklearra. Izan ere, AEBetako militarrek berehala eraso nahi zuten eta soldaduak eta hegazkinak prest zeuzkaten Floridan. Goi kargu batzuk ere familiekin babes tokietara joan ziren gerra berehala hasiko zelakoan.

ISILPEKO HITZARMENA

Lewellyn Thompson SESBen enbaxadore ohiak Kennedyri irtenbide bat eskaini zion orduan: misilak Kubatik kentzearen truke, AEBek uhartea ez zutela inbadituko. Turkiako misilak kentzeko konpromisoa ere hartu behar zuen Washingtonek, baina kasu hone-

tan isilpean. Kennedy eta Khrustxoven arteko konfiantzan eta hitzezko konpromisoan soilik oinarritu behar zen.

Joko diplomatikoaren bidez, AEBetako presidentek «ohore» mantentzea lortu zuen. Hala, SESBeko enbaxadoreari adierazi zion Turkiako Jupiter misilak kendu egingo zituztela, baina ez zutela berehala egingo eta urrats hori ez zela krisiaren konponbidearen parte izango, ez behintzat modu publikoan. Nahikoa izan zen. Urriaren 28an SESBeko presidentek adierazi zuen misil sobietarrak Kubatik kenduko zituztela hurrengo asteetan.

Turkiaren inguruko sekretuak 25 urte iraun zuen.

Washingtonek eta Moskuk garaipen diplomatikoa nabarmendu zuten hurrengo urteetan, mundua gerra nuklear batean sartzetik minutu eskas batzuetara eraman ondoren.



Nikita Khrustxov
buruzagi sobietarra eta
John F. Kennedy
AEBetako presidentea,
Vienako bilera batean,
krisia baino urtebete
lehenago.
Intefoto | AFP

Baina Kuban taula geopolitikoan fitxa bat izatearen sentsazio mingotsa geratu zen.

Negoiazioetan ez zuen parte hartu eta herrialdearen eskaerak ez zituzten kontuan hartu bi potentziek.

Gerra nuklearraren erdigunean egotearen arriskua urrundu zen, baina uhartearen segurtasuna ez zegoen guztiz bermatuta AEBen ez inbaditzeko konpromiso hutsarekin. Hain zuzen, hurrengo hamarkadetan erasoek eta blokeoak jarraitu egin zuten. Eta Guantanamo basea AEBen esku geratu zen, ondoren historiako beste atal ilun baten eszenatokia izateko.

Fidel Castrok gaitzetsi egin zuen SESBeko presidentek kubatarrak kontuan hartu gabe uhartean AEBen inspezioak onartu izana. Berez, Kubak azkenean ez zituen onartu inspezio horiek.

Ernesto Guevara “Che”-ren esanetan, Kubak ikuskapenak ez onartzeak «Iraultzaren ospe moral eta politikoa salbatu zuen koiuntura hartan, uhartea sobietarren peoi soil gisa ez ikusteko».

50 urte beranduago, Kubako Iraultzaren liderrak artikulua batean adierazi zuenez, Nikita Khrustxov buruzagi sobietarrak izan zuen jokabidea ezbehar politiko handia izan zen SESBentzat.

U-2 hegazkin espioi bat lurrera bota ondoren, gerra nuklearra piztear egon zen berriro. Izan ere, AEBetako militarrek berehala eraso nahi zuten eta hegazkinak prest zeuzkaten Floridan

Kuban, taula geopolitikoan fitxa bat izatearen sentsazio mingotsa geratu zen. Negoiazioetan ez zuen parte hartu eta herrialdearen eskaerak ez zituzten kontuan hartu bi potentziek

«EZBEHAR POLITIKOA»

«Gertaera haiek, zalantzarik gabe, Nikita Khrustxovek bere karguaz ordaindu zituen; are-
rioa gutxietsi egin zuen, ez zituen entzun jakinarazi zizkio-
ten irizpideak, eta ez zuen kontsultatu bere azken eraba-
kia lehen lerroan geundene-
kin», deitoratu zuen Castrok.

Izan ere, egoera normaltze-
ko presidente kubatarrak bost
puntu planteatu zituen urria-
ren 28an: blokeo ekonomikoa
altxatzea; Kubaren aurkako
AEBen ekintza subertsiboak
eta inbasio planak bertan be-
hera uztea; aire eta itsaso es-
pazioaren urraketa bukatzea,
eta Guantanamo basea ken-
tzea eta Kubari itzultzea. Baina
negoiazioetan ez zituzten
kontuan hartu.

«Garaipen moral garrantzi-
tsu izan zitekeena SESBentzat
ezbehar politiko garestia
bihurtu zen», idatzi zuen Cas-
trok.

Uhartean saminez hartu zu-
ten irtenbidea. Abandonatu
eta traizionatu egin zituztela
sentitu zuten. «(Sobietarrek)
Espainian egin zuten gauza
bera egin ziguten» bezalako
iritziak edo «*Nikita, Nikita, lo
que se da no se quita*» (eman-
dakoa ez da kendu behar) be-
zalako leloak zabaldu ziren.

Eta Kubaren eta AEBen arte-
ko tentsioak hainbat hamarka-
da gehiago iraun zuen; gaur
egunera arte, alegia.

Castrok hala uste bazuen
ere, ezin da esan norainoko
eragina izan zuen misilen kri-
siak Khrustxoven erorketa po-
litikoan.

«Estatubatuarrak Kennedy
hil zuten. Guk ez genuen gure
buruzagia hil baina boteretik
kendu genuen», adierazi zuen
Nikolai Leonov KGBko zuzen-
dari ohiak ondorioen ingu-
ruan.

Handik denbora batera,
McNamara Kennedyren De-
fentsa idazkariak aitortu zuen,
larunbateko arratsalde eder
batean Etxe Zuriko lorategie-
tan paseatzen ari zirela pen-
tsatu zuela hura zela presiden-
tea ikusiko zuen azken
arratsalde.

Halaber, Fidel Castrok zera
adierazi zion: «Inbasioa eginez
gero, gerra nuklearrak eztanda
egingo zuen. Eta zer gertatuko
zatekeen Kubarekin? Desager-
tuko ginatekeen, arriskua iku-
si genuen. Benetan diot. Ondo-
rioa zera da, McNamara jauna,
beldurrean oinarritzen bagara
inoiz ez gara gai izango gerra
nuklearra ekiditeko».

Kubako Iraultzaren liderrak
gogora ekarri zuen 1962ko
urriko gertaerek mundua era-
bateko gerra nuklearraren ata-
rian jarri zutela, eta «gerra nu-
klear horretako ezein alderdik
ezingo zukeen bizirik iraun,
ezta gizateriak berak ere», na-
barmendu zuen.

Arriskua hain hurbil ikuste-
ak arma nuklearrak ez ugari-
tzeko hitzarmenak ekarri zi-
tuen, mehatxuak jarraitu
bazuen ere.

Halaber, krisiak konpontzen
saiaitzeko zuzeneko harrema-
na ezarri zen Etxe Zuriaren eta
Kremlinen artean, «telefono
gorri» delakoa.

Egun, teknologiak harrema-
nak azkarrago eta eraginkorra-
go izateko bidea eskaintzen
du, baina inork ez du imajina-
tzen isilpeko eta hitzezko itun
bat, Kennedyk eta Khrustxo-
vek Turkiako misilak kentzeko
adostu zuten gisakoa.

Hor datza, hain zuzen, gaur-
ko mehatxu lausoen arriskua,
Putin eta Bidenen arteko kon-
fiantzarik ez dago eta ekintza
militarrek, harrokeriak eta ga-
tazka armatuek edozein urrats
diplomatiko ezabatu dute.

GERRAKO TEKNOLOGIA

Irangoak eta nonahikoak, suizidak ala ez, droneen gerra betea Ukrainan

ARMAGINTZA / Mikel Zubimendi Berastegi

Ukrainarrek zein errusiarrek erabiltzen dituzte droneak gerrarako arma modura. Tamaina, irismen, ezaugarri, gaitasun askotarikoak daude, urrunetik gidatzen diren erasorako gailuak dira eta gerraren dinamika aldatzen ez duten arren, asko baldintza dezakete. Orain fokua «drone suizida irandarren» gainean dago jarria.

Sare sozialetan ugariak dira irudiak. Motor partikular baten hotsa, silueta ezagun bat eta, bat-batean, jomuga ongi identifikatua dute-nean, goitik behera doaz leherketa handi bat eraginez. «Drone suizidak» dira, Irangoak omen, eta populazio zibilean eragin psikologiko handia sortzen dute. Izan ere, negua heltzear denean, argindar estazioei, presa hidroelektriko-
ei, erregai deposituei erasotzen diete, hirietan jendea izutzen dute, bunkerretan eta metro geltokietan sartzera behartuz. Eta ukrainarrek batzuk botatzen dituzten arren, oraingoz ez dute drone horien aurkako defentsa neurriekin asmatu.

Hasteko, kontzeptu batzuk argitzea komeni da. Droneak ez dira Ukrainako gerran ez bando batentzat ez bestearentzat zilarrezko bala. Ez dute gerraren dinamika aldatzen. Baina baldintzatu, asko baldintzatzen dute. Ukrainarrek eta errusiarrek, biek erabiltzen dituzte droneak. Batzuk tradizionalagoak dira, handiagoak, azkarragoak, misilak itura bota eta euren basera bueltatzen direnak. Horietan agian ospetsuenak, Ukrainako sinbolo nazional bihurtzerai-

nokoak, Bayraktar TB2 turkiarrek dira, laserrez gidaturiko bomba eta misilak jaurtitzen dituztenak.


Errusiak ere baditu familia honetako drone propioak. Baina mota honetako droneek desabantaila konpetitibo bat daukate aire defentsa sendoen aurrean aritu behar direnean: garestiak dira eta multzo handietan ez ohi dira erabiltzen.

Badira drone txikiagoak ere, Interneten aise lortu daitezkeenak, sarritan artilleriaren jopuntuen koordinatuak markatu eta tiroak zuzentzeko erabiltzen direnak. Badira errekonozimendu eta inteligentzia lanerako erabiltzen direnak, badira ur azpiko droneak ere, Ukrainan alde guztiek erabiltzen eta frogatzen dituztenak.

DRONE SUIZIDAK

Baina Kiev hiriburuko leherketekin ikusgarri egin direnak «drone suizidak» izan dira. Drone tradizionalak ez bezala, ez dute euren baseetara bueltatu behar. Ituaren aurka lehertzeko diseinatuak daude eta itua kolpatzean autosuntsitzen dira. Eramangarriak dira, misil balistikoak baino erabilerrazagoak, eta lehergailu karga handi samarra eramaten dute.

Alboko irudian, astean Kieven drone bitartez izandako erasoaren irudiak. Droneak etxebizitza bloke bat suntsitu zuen. Beheko partean, droneak detaile handiagoz. Sergei SUPINSKY | AFP





Ukrainak ere baditu bereak, AEBek eta Britainia Handiak eman dizkieten Switchblade 300 eta Switchblade 600 edo Black Horn bezalakoak. Errusiak ere baditu bereak, Kalaxnikov konpainiak egin-dako ZALA droneak kasurako. Baina, orain, arreta informatio osoa «drone suizida irandarrek» bereganatu dute.

Bi bertsio azaldu dira Ukrainako gerraren erdian. Shaed-131 (900 kilometroko irismena eta 15 kiloko ojiba dutenak) eta Shaed-136 (2.500 kilometroko irismena eta 40 kiloko ojiba dutenak). Eta AEBetako inteligentzia zerbitzuek prentsari filtratu diotenez, bidean egon daitezke Arash-2 drone irandarrak (askoz ere irismen eta ojiba handiagoekin) eta, are, Fateh-110 (300 kilometroko irismena eta 650 kiloko ojiba) eta Zolfaghar (700 kilometroko irismena eta 650 kiloko ojiba)

Droneak ez dira Ukrainako gerran ez bando batentzat eta ez bestearentzat zilarrezko bala. Ez dute gerraren dinamika aldatzen. Baina baldintzatu, asko baldintzatzen dute

Abantaila konpetitibo batzuk badituzte arma hauek: misil errusiarrekin alderatuz gero merkeagoak dira, eraginkortasun handia dute eta aukera ona da su potentzia handitzeko

misilak ere bidean egon litezke.

Abantaila konpetitibo batzuk badituzte arma hauek: misil errusiarrekin alderatuz gero, izugarri merkeagoak dira, eraginkortasun handia dute eta aukera ona da errusiar armadaren su potentzia handitzeko. Berri agentziek diote Iranek saltzen dizkiela zuzenean, baina arrazoizkoa da pentsatzea Errusian bertan ere muntatzen direla Irango arma konpainien baimenarekin.

Edonola ere, errusiarrek pintatu, bere marka eta zenbakiak erantsi eta izen propioa eman diete: Geranium-2. Egia da, bestalde, Errusiako komunikabideetan arma irandarren inguruko berriak ez direla jada tabu bat, lau haizeetara aldarrikatu gabe, nahiko suelto hitz egiten dela haietaz. Iranek ere ez du ezer ofizialki baieztatzen, baina bistan da bai Errusiarentzat eta bai Iranentzat ere tratatu ona dela.

Herrialde persiarrek «drone diplomazia» –Turkiak bere Bayraktar TB2ekin bezala– delakoa egiteko erabiltzen ditu. Merkatu berriak ireki (berezi-ki Asia erdialdeko herrialdeetan muntatu ditu droneak ekoizteko planta berriak), erosle potentzialak biderkatu eta Errusiarrengatik behar di-tuen armak lortu ahal ditu, bereziki aire-defentsa sistematik eta SU-30 edo berriagoak diren SU-35 bezalako erasora-ko hegazkinak.

ABANTAILAK ERRUSIARENTZAT

Eta Errusiak ere abantailak eskuratzen ditu. Ukrainako azpiegitura kritikoak kolpatu ahal ditu bere misilen aldean askoz ere txikiagoak, eraman-garriak eta erraz aireratu daitezkeen Geranium-2 «drone suizidekin». Askoz ere merke-agoak dira, Alibaban eros daitezkeen GPS nabigazio sistematik dauzkate, ia bi mila kilometroko irismena, eta airean orduak eman ditzakete itua kolpatu baino lehen. Gainera, frontean bertan –ukrainar artilleria brigadak (AEBetako HIMARS misilena edo M777 kanoiak, edo frantziarrren CAESAR sonatuak adibidez)– eta atzeguardian –hornidura kate osoan– erabil daitezke, bakarka edo drone multzo handietan, aire defentsak saturatzeko, besteak beste. Geldoak izan arren, lehergailu karga handiak eramaten dituzte eta bidean atzemateko ez dira errazak. Posible da, noski, aire sistema oso garesti eta integratuekin edo gerra elektronikorako sistemekin, misilekin alderatuz gero ez direlako azkarrak. Baina batzuk atzeman arren, saldoan datozenean ia beti iskin egiten du bakarren batek, edo batzuek.



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Agortu baino lehen

Gizakiok besteekiko kontaktua behar dugu bizirik irauteko. Talde lankidetzari esker, azkarrago eta hobeto egokitu gaitzke ingurunera. Horregatik, giza loturak edozein pertsonaren ongizatearen zati esanguratsu bat dira. Izan ere, bakardadea eta isolamendu kronikoa kaltegarriak dira osasunerako.

Animalia sozialak gara, baina batzuk besteak baino gehiago. Guztiok ez dugu modu berean kontaktu sozialez gozatzen. Bizitza sozial oso aktiboa duten pertsonak dau den bezala, beste batzuek nahiago dute denbora gehiago pasatu bakarka. Gainera, oro har, kontaktu sozial jakin batetik abiatuta, kontaktu hori mantentzeko edo indartzeko egindako ahaleginak agortu egin gaitzake. Ez dugu beti sozializatzeko gogorik, eta horretara behartuta egotea eguneroko bizitzan izan ditzakegunei gehitu beharreko estres iturri bihur daiteke.

Agortze hori, gure nortasun estiloari lotuta dago, maila ezberdinean agertuko baita nortasun kanporakoiagoa edo barnerakoiagoa duten pertsonengan. Horrela, lehenik eta behin, argi eduki behar dugu nortasuna faktore anitzeko ezaugarria dela. Bertan aldagai ugari sartzen dira, bai ingurumeneak, bai sozialak, bai gure esperientziei dagozkienak eta, jakina, genetikoak. Beraz, gure gurasoen nortasuna heredatzen dugu, baina ezaugarri batzuk bakarrik, zertzelada batzuk baino ez.

Hala ere, sozializatzer behartuak gaudenean, ez du axola kanporakoiak edo barnerakoiak izatea: une jakin batean sozializatzer behartuak izatea nekagarria eta es-

tresagarria da. Lehen begiratuan, kontraesankorra iruditutakiguke sozializatzek modu horretan eragitea. Jarraera atsegina izanez gero, borondatez aukeratzen dugu gure aisialdirako. Hala ere, beste batzuekin harremanak izateak baliabide kognitibo asko kontsumitzera garamatza eta barnerakoiei maila handiagoan eragin diezaieke. Baina, egia esan, denok izaten ditugu denbora bakarrik pasatzeko gogoia izaten dugun uneak, eta beste une batzuk, berri, jendearekin denbora pasatzeko gogoia izaten dugunak. Ia inork ez du bakardadea edo sozializazio eten-gabea soilik aukeratzen.

Beste pertsona batzuekin egotera behartzea aukeratu gabeko bakardadea bezain itogarria izan daiteke.

Une bakoitzean aukeratu ahal izateak konpromiso sozial batera jo nahi dugun, edo bakarrik egon nahi dugun, gure oreka mentalaren erdi-erdian eragiten du. Gogorik gabe komunikatu behar izatea, egoera emozional positiboak behartzea, besteek gogoko izan gaitzaten gure maskarak janztea, adiskidetsuak eta karismadunak izatea prozesu estresagarriak dira.

Gure sozializazio beharrak ezagutzeak eta onartzeak, eta ez behartzeak, bakardade eta atsedeneak ahalbideak energia agortze hori askoz ere gutxiagotan agertzea eragingo du. Funtsean, bakoitzak aurkitu behar du maila guztietan onura gehien ekarriko dion baliabide hori. Garrantzitsuenak da nork bere burua egunero zaintzea eta berriro konektatzeko eta lasai egoteko denbora eskaintzea. •



Sozializatzea aberasgarria da, baina itogarria ere izan daiteke. GAUR8

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Arrastoa uzten duten urteurren esanguratsuak

Laura Martin hil zen aurreko asteburuan. Juan Carlos Garcia Goena GALen azken biktima ofizialaren alarguna justiziarik, egia-rik eta erreparaziorik gabe hil zen, nahiz eta askotan eskatu zituen, 1987ko uztailaren 28an Hendaian senarraren autoan jarritako bonba batek hura hil zuenetik. Izan ere, gerra zikinaren eta, oro har, Estatuaren indarkeriaren biktimek ukatua izan dute egia, justizia eta erreparazioa.

Maiz erabili izan dira halako hitzak, baina zehazki zer esan nahi ote duten argitzea ez da hain ariketa erraza. Zer da egia? Zer da gertatutakoa argitzea? Zerk ekar dezake mina arintzea eta etorkizunari itxaropenez begiratzea? Hedabide nagusietan, zenbait alderdiren adierazpenetan eta ETak eragindako biktimen elkarte batzuen hitzetan gutxitan topa daiteke erantzun positiborik, horiek gehien indartzen duten mezua mendekuarena baita.

Mendekuaren mezutik urrun, beharbada Laura eta Juan Carlosen alabak azaldu zuen egokien hitz horien esanahia Foro Sozialak berriki antolatutako ekitaldi batean, bere aitaren hilketari buruz hitz egin zuelarik.

«Zer da egia?», bota zuen galdera Maider Garciak biktima ezberdinak bildu zituen hitzaldian, jarraian bere erantzuna emateko: «Ni neu, gaur egun, judizialki, mertzenario jakin hori izan zela lehergailua jarri zena esateak ez nau asebetetzen. Niretzat egia argitzea Estatu espainolak gertatu zena onartzea litzateke».

Hitz horietatik ondoriozta daiteke eragile nagusiek beren ardura politiko eta historikoa onartzea dela, betiere, gatazkaren ondorioei behar bezala heltzeko bide egokiena, gatazka gainditzeko norabidean eta haren alde gogor eta krudelenak inoiz ez errepikatzeko berme gisa. Elkar ulertzeko eta elkar errespetatuz aurrera egiteko oinarri sendoa da, zigor eta mendeku hutsarena baino askoz ere gehiago, dudarik gabe.

Ez da honakoa aste txarra izan hori guztia berriro nabarmentzeko. NAIZek elkarrizketa egin zien Arnaldo Otegi eta Arkaitz Rodriguezi, hain zuzen ere, duela urtebete Urriaren 18ko Adierazpena irakurri zutelako iaz Aieteko Konferentziaren eta ETak borroka armatua utzi izanaren hamargarren urteurrena betetzen zirela-eta. Aieteren bide-orria eta hango puntu guztiak gogoratzearekin batera, ETak eragindako biktimentzat ere hitzak izan zituen aipatu adierazpenak.

Aste honetan izandako elkarrizketan Otegik eta Rodriguezek duela urtebete esandakoaren balioa berretsi dute, eta politikoki horrek badu garrantzia. Posizioa finkatu duelako eta, ezkerreko independentismoari askotan kontrakoa egotzi nahi izan bazaio ere, ez dagoelako gai honetan jokaldi taktikorik, norabide oso bat

Eragile nagusiek beren ardura politiko eta historikoa onartzea da, betiere, gatazkaren ondorioei behar bezala heltzeko bide egokiena

baizik, dagoeneko zenbait mugarri izan dituen: eragindako kalteari buruz 2018ko apirilaren 8an ETak egindako adierazpena, aipatutako iazko Urriaren 18ko adierazpena edo euskal presoek kartzela ibilbidean aurkeztutako idazkiak, besteak beste.

Konparaketetan hasiz gero, bistan da Estatuaren aldetik ez dela pareko mugimendu txikiena ere egon, baina horrek ez du baitezpada sendotasunik erakusten. Bere posizioan gogortu behar duela, besterik ez. Horregatik mugitu da ezkerreko independentismoa, duela hamarkada bat baino gehiago abiarazitako ziklo aldaketa azken bururaino eramateko borondatea modu argian erakutsi izanak ekarri baitizkio eta ekarriko baitizkio egoerak aldatzeko aukerak. •

KARTZELATIK GANBARARA

Hauxe duzu nahi duzun neurrian eta doinuan hiru bertso kantatzeko gaia

Zenbat errezo egin izan det nere deboran elizan/ ta pozik nago ikusirikan pakian nola gabiltzan/ni naitzen bezin kobarderikan iñor ezin leike izan/ semeak gerra ez yoateatik mutil zar gelditu nitzan».

Jose Manuel Lujanbio "Txirritak" 1936ko Bertso Guduko finalean Donostiako Victoria Eugenia kantatua, bakarkakoan. Artean ez zen kartzelako ariketarik, gai berari segidan kantatzen zioten bertsolariek, denak oholtzan zirela. «Gerra zitalaren ondorio gaiztoak» gaiari guztira 27 bertso jarri zizkioten finaleko bederatzi bertsolariek eta Txirritarenak, 27 horietatik batek, gaur arteko bidea egin du, ez baitira bat edo bi bertso hori buruan gordea daukatenak.

Bederatzi bertsolari segidan gai berari kantatuz, batak bes-

 **KULTURA** / Amagoia Mujika Telleria

Txapelketako saioetan une gorenetakoa da ganbara –duela gutxira arte kartzela–, zeremoniatsuena. Aparteko toki batera eramaten dituzte bertsolariak eta banaka ariketa bera proposatzen diete, aukera berdintasunaren izenean. Ganbara aldatu egin da urteen joanean, eta ez da izenez bakarrik aldatu.

tearena entzunaz oholtza gainean. Ez kantatzeko ez entzuteko ez zuen samurra izan behar eta, gainera, bertsolari denak ez ziren baldintza berdinetan aritzen. Lehena izan, laugarrena edo bederatzigarrena, bazen aldea.

1960ko hamarkadan Euskaltzaindiak hartu zuen txapelketak antolatzeko ardura eta orduan etorri zen lehenengoz kartzelako ariketa. Badirudi 60ko txapelketan ez zela es-

presuki izen horrekin aipatu, baina jasota geratu denez, «Basarri kanpora eraman dute eta Uztapidek kantatzen du». 1962koan, aldiz, "kartzela" hitza erabiltzen da ariketa bera izendatzeko.

Bidegileak bilduman Mertxe Ezeizak jasota utzi duenez, kartzelako ariketa Fernando Artola "Bordari" bertsozalearen ideia izan zen (Txomin Artolaren aita). Bordarik lehia modu berriak ekarri zituen

bertsolaritzara; batetik, kartzelakoa –«bakoitzaren abildadeak eta sormen gaitasuna gehiago nabarmentzeko»– eta, bestetik, binaka ofizioa ari-tzea –«norberarenari eutsiz kantu lagunaren arrazoiketa gainditzeko eta argudio ahalmenak saritzeko»–.

Eta horrela, Bordariren ekimenez, kartzela jarri zioten bertso txapelketei. 1960ko hamarralditik kartzelako ariketa aldatu egin da, segur aski gehiago barrutik kanpotik baino. Alegia, ariketaren funtsak bere horretan segitzen du gutxi edo gehiago, baina kartzela den toki fisiko hori aldatu egin da.

Millan Telleriak ez du ahazteko 1970eko hamarkada amaieran ezagutu zuen kartzela bat, ezagutu duen «muturrekoena». «Mungian izan zen, Euskal Herriko Bertsolari Gazteen Txapelketan. Kanpo-ko saioa izan zen, ez zen areto

2017ko Bertsolari Txapelketako Irungo finalaurrekoa. Ezkerrean, Unai Agirre eta Maialen Lujanbio ganbarara bidean. Lerro hauen azpian, Lujanbio ganbaratik aretora sartzen, bakarkako ariketari eusteko. Liturgia handiko unea da ganbarakoa.
Jon URBE | FOKU




itxian izan. Kartzelarako ez zuten areto egokirik izango eta okurritu zitzaaien altzariak eramateko erabiltzen zen kamioi zikin baten atzeko partean sartzea bertsolariak. Koltxoi eta bestelako traste zahar batzuk ziren bertan eta oso usain txarra, oraindik gogoan daukat usain hura. Eta, gainera, kamioia martxan jarri zuten, bestela bertso saioa entzun egiten zela-eta, kamioia plazatik gertu aparkatuta zegoelako. Han ez zen pertsonarik egongo zenik. Nahiko lan kontzentratzen eta lasai egoten. Murua, Mendizabal, Solozabal, ni neu... ginen kamioi hartan. Barrutik hasi ginen kolpeka, han ezin ginela egon esateko. Gutxienez kamioia itzaltzeko eskatu genien eta beharrezkoa bazen beste norabait mugitzeko. Azkenean kamioia itzali ziguten eta barruan egon ginen. Hura inhumanoa izan zen».

Toki gozoagoak ere izan dira. Esaterako, Zarauzko Lizardi Txapelketa Zinema pilotalekuan jokatzeko zenean, parean zegoen Kukulubarnako jangelan izaten zen kartzela. Bertako jabeek gogoan dute nola-ko estuasuna pasatzen zuen kartzelan azkena geratzen zen bertsolariak, denak gaztetxoak, gazteen sariketa baita Lizardi.

GERTUTASUNA ETA URRUNTASUNA

Aldatu egin da kartzelako ariketa, ertz askotatik. Adibidez, aurtengo Txapelketa Nagusirako, izena aldatu diote. Orain, ganbarako ariketa da. Andoni Egañak badaki zerbait bakar-kako ariketa horri buruz. 1986an kantatu zuen lehen aldiz Txapelketa Nagusiko finalean eta 2009an, azkenengoz. Tartean joan diren 23 urteetan gertutik ezagutu du ganbara



Egañak (bestelako txapelketa eta lehiaketetakoak barne).

Kartzela ganbara bihurtzearen inguruan, esateko ezer gutxi dagoela uste du zarauzarrak. «Kontzeptualki, inor ezin da kontra edo alde egon. Txisterako tartea eman dezake, baino gutxi gehiago. Duela hiruzpalau hilabete aldaketa hori aipatu zidatenean, elkartean baten bat oso fin ari dela pentsatu nuen. Iruditzen zait ez zela ezer kostatzen aldatzea eta ekar dezakeen bakararra onura dela. Kartzelara ohitu egin gara, baina kartzelak badi esanahi punitibo bat, zigorrarena, isolamenduarena. Ganbarak, kontrakoa du; uzta-rena, biltzearena, kontzentrazioarena... Kartzela hainbestetan entzun dugu, hitzari pisu guztia kendu diogula. Baina

Irudian, 1970eko hamarkada bukaerako bertsolari gazteen sariketa bat. Eskuinaldean ageri da Millan Telleria. Garai hartako kartzelek eta oraingoek ez zutela antzik kontatzen du Telleriak. XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

Gertutasunaren eta urruntasunaren arteko oreka da ganbararena. Gertu egotea komeni da, saioaren martxa ez oztopatzeko; baina bertatik saioa ez entzuteko adinako urrun

Belodromoko aldagelan zegoen kartzela. Saioa ez entzuteko, irratia piztuta. «Futbola entzuten ari ginela, irratia dila mugitu zen berez eta halako batean Irazuren ahotsa entzun genuen»

pisua hor zegoen. Ondo iruditzen zait aldaketa».

Ganbararen kokalekuari dagokionez, Egañak dioenez, «beti ahal dena egiten da». «Toki garrantzitsua oholtza eta oholtza ingurukoa da. Ganbara beti topatzen da ahal den eskuragarrien eta ahal den ezkutuen. Handik ezin da entzun eta ahalik eta gertuen egon behar du. Hortik abiatuta, mila aukera ezagutu ditugu».

1986ko Txapelketa Nagusiko finaleko kartzela ez du gogoan Andoni Egañak. «Esango nuke kartzela Belodromoko aldagelatan izan zela, baina ez dut gogoan kantatzen lehena izan nintzelako. Eman dizkiot bueltak eta ez daukat gogoan kartzela hura. Izango zen lehenengo izan nintzelako kantuan eta beraz ez nintzen kartzelan egon. Hori ere gertatu daiteke».

Gertutasunaren eta urruntasunaren arteko oreka korapilatua da ganbararena. Gertu egotea komeni da, saioaren martxa ez oztopatzeko; baina bertsolariek bertatik saioa ez entzuteko adinako urrun egon behar du. «Horregatik dira arraroak kartzelak».

1993ko Belodromoko kartzelaz akordatzen da Egaña. «Gogoan daukat 93an oso urrutira eramanez gintuztela. Belodromotik atera eta orain errugbi zelaia denaren aldagelatan izan zen kartzela. Igual 500 metro zeuden oholtzatik hara eta horrek atzeratu egiten zuen dena. Eta ez atzeratzeko-

tan ere, sekulako antolakuntza behar zen batek amaitu baino lehen bestea abiatzeko. Oholtzatik irteten kostatzen zen eta kalean beste estadio batera sartu eta hango aldagela izan zen».

1993an urrunegi kokatu zuten, 1997an gertuago paratu zuten kartzela. «Belodromoko barruko aldagela batean jarri gintuzten, gertuago. Baina zerbait entzun egiten zen eta orduan irratia jarri ziguten, ez entzuteko. Realaren partidua ari zen, Deportivo de la Coruña 1- Real Sociedad 1 bat izan zela uste dut. Ez zen samurra han kontzentratzea, egia esan. Futbola entzuten ari ginela, irratia dila mugitu zen berez eta halako batean Irazuren ahotsa entzun genuen. Eta bertsolari denak kartzeleroari abixua ematen, mugitzeko dila. Jexux Murua zegoen kartzelero».

Garrantzitsua da ganbarazainaren figura –lehen kartzeleroa zena ganbarazaina da orain–. Egañaren esanean, «zenbat eta gehiago ezagutu, hobe. Konfiantza izatea, bertsolari bakoitza ezagutzea, txantxa batzuk egitea, zeini hitz egin eta zein bakean utzi jakitea... ganbarazainak egoera irakurtzen jakin behar du».

Donostiako Belodromotik Barakaldoko BECera aldatu zen final nagusia eta baita, noski, ganbara ere. «BECeko nire lehen finalean, 2005ean, ez naiz gogoratzen non zegoen kartzela. Baina bigarrenetan bai, urruti samar, eta kotxe bat

jarri zuten aretotik kartzelara joateko. 200-300 metro egongo ziren, baina bidea azkarra-
go egiteko kotxe bat jarri zuten», gogoratu du Egañak.

BECeko kartzela «barra libre» zela dio. «Produktu osasuntsuekin, baina kontuan izanda bertsolariak azukrea beharko duela, txokolatea, intxaurreak...». Tokitan geratu dira altzari-kamioiak.

«Nik adibidez BECeko nire azken txapelketan ez neukan buruan hainbeste txapelketa bera. Baina baneukan buruan Asier Altuna 'Bertsolari' dokumentala grabatzen ari zela. Goizean goizetik hasi nintzen berarekin grabazio bat egiten. Eta banekien Altuna kartzelako atarian egongo zela. Konturatu nintzen nire aurrekoak, Ametsek, txamarra gorri bat zeukala eta ahaztuta utzi zuela kartzelan. Eta pentsatu nuen Ametsen txamarra gorria hartu eta nik eramango niola oholtzara. Pentsatu nuen Asierrek harrapatuko zuela keinua eta oholtzan errelebo aldaketa irudikatuko genuela txamarra haren bitartez. Baina baita zera ere! Asierrek ez zuen harrapatu keinua eta Amets ez zen enteratu ere egin txamarra ekarri nionik. Baina eraman nion txamarra. Ni momentu horretan 'Bertsolari' dokumentalaren gidoian nengoen».


Ganbaran jan eta edan gutxi egiten omen dute bertsolariak. «Niri gorputzak erretzea eta kafea eskatzen zidan. Akordatzan naiz 1997an edo 2001ean bertsolari batzuk hasi zirela platanoren bat eramaten kartzelako une horretan jateko, kirolarien tankeran».

KARTZELAKO ARIMA

Toki fisikoa aldatu egin da. Baina, bertsolariaren baitan

aldatu ote da ganbara? «Igual bai, baina azkenengoetan ez naiz egon eta ezin dut esan. Nire hasierakoetatik nire bukaerakoetara, bai, aldatu zen. Hasierakoetan, 86an eta 89an... bazegoen osagai tuntu bat, niri eragin ez didana eta orain ahaztuta daukaguna. Eta eskerrak ahaztuta daukagun. Osagai hori Bizkaia-Gipuzkoa zen, tontakeria ikaragarria. Kartzelan igartzen zen, elkartzeko moduan edo, zeintzuk ziren gipuzkoarrak eta zeintzuk bizkaitarrak. Nik ez nuen inoiz hori sentitu, baina batzuetan bazirudien taldeka ari ginela edo. Bazegoen halako usain arraro bat. Probintziakeria tuntu horrek agian eragina izango zuen 80ko hamarraldian. Gero aztertzen hasten zara eta igual normala da. 80ra arte beti gipuzkoarrek irabazi zuten txapela, Basarrik eta Uztapidek. 80an eta 82an Amurizak irabazi zuen, 86an Lizasok eta 89an, Lopategik. Probintziakeria tuntu hori ezagutu dut, ez bertsolarien aldetik, baina bai entzuleen aldetik eta horrek eragiten zuen kartzelan. Akaso gehiago elkartzen ginen gipuzkoarrek gipuzkoarrekin... akaso belaualdi kontua ere bazen. Probintziakeria hori ere bazegoen airean. Ederra tontakeria».

Bertsolari bakoitzak ganbara modu desberdinean bizi du, bakoitzak bere izaeratik eta bere saiotik. «Segun zein dagoen kartzelan, segun saioa nola doan, bakoitzaren aukera maila... dena nahasten da. Saio kaskarra egin duena kartzelan egon daiteke lasai, etsita, axolagabetuta... bere burua txapelerako lehian ikusten duena kontzentratuago egongo da, edo ez, akaso irekiago eta berritsuagoa. Batzuk urduritzen direnean hizketan hasten dira,



Lerro hauen alboan,
2001eko Belodromoko
kartzela. Beheko partean,
Andoni Egaña.
BERTSOLARI ALDIZKARIA
Andoni CANELLADA | FOKU

beste batzuk bere baitara biltzen dira. Denetarik dago». Hortik abiatuta, ez omen du ganbaran jokaera nabarmenik ezagutu. «Bere baitara bildutako jendea bai, izkina batean. Dantzan hasten denik ere bai. Jon Maia tartean baldin bazen, beti festa sortzen zuen. Nik eskertzen nion, nik nahiago dut destenkatu tenkatu baino, baina kontzentrazio bila zebilenak seguru gureak pailazokeriatzat hartuko zituela... izaerak dira eta momentuak».

Egañaren ustez, ganbarakoa saioaren irakurketa egin eta gogoratzeko unea izaten da. «Normalean ordurako eginda izaten duzu saioaren irakurketa. Txapelketa batean atzean ere denbora asko ematen duzu eta normalean eginda izaten duzu kalkulua. Kartzelara joaten zara gogoratzeko zer egin nahi duzun, erabil ditzakezun doinu posibleak gogoratzeko... Askoz gehiago ez».

Ganbarak izaten omen du une kolektibo bat, bertsolari denek partekatzen duten hasierako une bat; saioa erreparatu, gauza batzuk aipatu... eta gero bakarkako une bihurtzen da, norbere buruarekin egoteko momentua.

Zozketak erabakitzen du bertsolariak kantatzeko ordena. Baina, aukeratu ahal izanez gero, ganbaran lehena edo azkena? «Normalean tartekoren bat izaten da onena. Batak ezustean bezala harrapatzen zaitu, ariketa bat bukatu eta segidan kartzela. Hantxe gertatzen zara, jendetza baten aurrean, zu bakarrik eta erdi biluzik bezala. Hirua edo lau ez dira txarrak. Azkenengoa ere gogorra da. Gogoan daukat 93an, Casillan jokaturako finalurrekoan, kartzela areto kanpoan zegoen jatetxe bateko jangelan zen. Ni zazpia izango

nintzen eta lasai nengoen, banekien normalean finalean sartuta nengoela. Baina zortzia Igor Elortza zen, 18 urteko Igor Elortza. Aukerak zituen finalera sartzeko, ez zen sartu baina gertu ibili zen. Hirua joan eta zuri ikusten nuen Igor; laua joan eta Igor zuriago; ni joan nintzenean paretaren kolorea zeukan Igor gizajoak 18 urterekin...».

Bertsolariaren estrategian ere eragiten du kantaera ordenak. «Bata baldin bazara topikoa lasai samar bota dezakezu, publikoak lehen aldiz entzungo duelako. Baina zortzia baldin bazara, buelta pare bat gehiago eman behar».

LITURGIA GEHIEN DUENA

Ariketa bezala garrantzi handia ematen zaio ganbarakoari. «Normala da garrantziarena, liturgia handiena duen saioa hori da. Zelofan handiarekin dator. Iraun ere, zortziko batean, ordubete baino gehiago irauten du ariketak. Aldiz, hiruna puntu, berdin puntuatzen dute, baina hoge minutuan joan da».

Puntutan beste ariketek adi-na balio du ganbarakoak, ez ditu puntu gehiago ematen. «Berdin puntuatzen du, baina egia da bertsolari bakoitzaren prestakuntza, doinutegia, estrategia... gehiago islatzen direla ganbarakoan. Sinadura propioagoa du ariketa horrek eta jendea horrekin geratzen da. Gainera, azken ariketa da eta horrek ere badu partea».

Aldatu egin beharko litzateke? Puntutan balio handiagoa beharko luke ganbarako ariketak? «Sekulako eztabaida sortuko luke, baina agian eztabaidatu beharko da», iritzia dio Egañak.

Ganbarako gaietan ere gertatu da aldaketa. «Gai itxiago-

etatik irekiagoetara etorri gara, baina horrek ez du esan nahi orain beti irekiak izango direnik. Lehen fasean jarri dituzten ganbarako gaiak elkarren antzekoak izan dira, oso irekiak. Horrelakoetan zeuk pare bat erabaki hartu behar dituzu. Azken urte luzeetan hori da joera. Gai ireki horiekin, denbora gehiago pasatzen duzu erabaki horiek hartzen bertsoa pentsatzen baino. Garai batean, Euskal Herriko Txapelketan, horrelakoak izaten ziren gaiak: Hiru bertso Lurdes Iriondori. Hor zu zu zara, Lurdes Iriondo ere

bera da eta hortik aurrera ahal den ondoen esaten dituzu esan beharreko gauzak. Gai irekiekin, bestelakoa da kontua, sinadura propioarenak pisua hartzen du. Horregatik da arraroa zortziko txikiko hiru bertso eta ganbarako hiru bertso berdin puntuatzea», esan du Egañak.

Ganbaran eskatzen zaio bertsolariari mundu ikuskera propioa, gaiari ertzak topatzeko abildadea, originaltasuna, zorrozatasuna... Bertsolariari zera eskatzen zaio: erakutsi mundua zure begietatik eta harritu gaitzazu.



Goian, Lizarrako aurtengo ganbara. Behean, Donostiakoa. I. ZABALETA | FOKU- BERTSOZALE

GUSTURA ETA BABESTUTA

Peru Vidal da aurtengo ganbarazainetako bat. 2017an ere aritu zen lan horretan. «Gu normalean saioa hasi baino bi ordu lehenago iristen gara eta bertsolariak gustura egoteko moduko toki bat prestatzen dugu. Jatekoa eta edatekoa jartzen diegu eta toki atontzen dugu. Badaezpada soinu probak egiten diren bitartean ganbaratik ez dela entzuten ziurtatzen dugu. Bertsolariei harrera egiten diegu eta saioa hasi aurretik ere batzuetan ganbaran egoten dira, kontzentratzeko, bakarrik egoteko... Hor hasten da gure lana».

Saioak iraun bitartean, ganbarazainak bertsolarien esku egoten dira, bertsolarizain ere badirelako. «Oholtzaraino laguntzen diegu eta saioak iraun bitartean ere bertsolariak laguntzeko gaude, edozer behar dutela ere. Ganbarako ariketa hasten denean ganbarara laguntzen diegu eta bertan egoten gara beraiekin. Normalean bi ganbarazain egoten gara, batek ganbaratik oholtzarako bidea egiten du bertsolariekin banan-banan eta bestea ganbaran geratzen da gainontzekoekin». Bertsolaria babesteko toki bihurtzen da ganbara. «Gu saiatzen gara bertsolaria gustura eta babestuta egongo den toki bat izatea ganbara. Badakigu tentsio handiko uneak direla eta hori gozotasunez kudeatzen saiatzen gara».

Bertsolari bakoitzaren izaeraren arabera eta saioan zehar gertatu denaren arabera, batzuk berritsuago egon daitezke eta beste batzuk, isilago. «Denetarik dago, baina normalean gehienek nahiago dute isiltasuna. Gu tokian eta isilik egoten gara. Bertsolariak ikus dezatela gu han gaudela, baina ez dadila asko igarri. Normalean guk ez ditugu elkarrizketak abiatzen. Badira pixka batean hitz egin nahi duten bertsolariak, saioan gertatutako zerbait aipatu nahi dutenak... hor egoten gara hitz egiteko nahi badute, baina guk ez ditugu elkarrizketak abiatzen. Bertsolari guztiak gure ezagunak dira, konfiantza badugu, baina oharkabean pasatzen saiatzen gara. Egia da ganbarara joaterako saioaren parte handi bat joan dela eta askotan bertsolariek saioari buruzkoak galdetzen dizkigutela. Gu oholtzaren beheko partean egoten gara saioan zehar gauza askori arreta jarritz eta askotan ez ditugu bertsoak ondo entzuten. Ez gara galdera horiek erantzuteko moduan izaten, egia esan, eta halaxe adierazten diegu».


Bere munduan erabat sartuta dagoena, paseo asko ematen dituen, bakarkako doinua errebasatzen duena... ganbaran ez omen da gauza arrarorik ikusten. «Gauza ohikoak ikusten dira ganbaran. Badaude jatekoa eta edatekoa etxetik ekartzen duten bertsolariak, nahiago dutelako ohitura batzuei eutsi. Ganbaran gauza sinpleak jartzen ditugu; azukredun jakiak, kafea, ura, fruta... Dena eskueran daukate bertsolariek, baina esango nuke ez dela askorik jaten eta edaten».

Aurten bertsolari denek ezagutu dute ganbara, baita lehenak ere. «Aurten atsedean bat egiten dugu ganbarako ariketaren aurretik eta lehen tokian abesten duen bertsolariak ere izaten ditu bost minutu ganbarara joan, zerbait jan, pixka batean egon... nahi duenerako. Ez da tarte handia izaten, baina aukera hori badu».



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:





PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

Benetako gertaerak oinarri

Zergatik gustatzen zaizkigu hainbeste besteen bizitzak eta istorioak jorratzen dituzten ikus-entzunezkoak? Pertsona askok errealitatetik eta eguneroko errutinatik ihes egiteko telesailak ikusten dituztela esan ohi dute, baina gehien gustatzen zaizkigunak benetako gertaeretan oinarrituta daudela kontuan izanik, ez al da apur bat paradoxikoa?

Horrek, gainera, beste hausnarketa batera garamatza: istorio berriak, hutsetik sortzen diren gidoiak edo sormen lan originalak topatzea gero eta zailagoa dela, baina hori beste egun baterako utzi nahi dudana gogoeta da.

“Dahmer” telesailaren aitzakia erabiliz, benetako gertaeretan oinarritzen diren azken boladako izenburu batzuen kasua aztertuko dut, fikziozko moldaketaz gain gertaera horiek dokumental formatuan ere jorratu dituztenak.

Monster: The Jeffrey Dahmer Story & The Jeffrey Dahmer Tapes

Netflix

Milwaukeeeko munstroaren istorioa azaltzen duen telesail ilun eta deserosoa. AEBetan, 1978-1991 artean, Jeffrey Dahmer izeneko serieko hiltzaile honek egin zituen hilketa beldurgarriak ardatz dituena. Ryan Murphyk orain arte egin duen guztia kontuan izan beharko banu eta balorazio orokor bat egin, gehiegi gustatzen

ez zaidan zuzendari bat dela aitortu behar dizuet. Sortzaile oso interesgarria iruditzen zait, gai interesgarriak plazaratzen dituen, lan oso onak egin dituen, baina ekoizpen guztiak zerbait falta zaien sentsazioarekin amaitu ditut beti. Ondo daude, bai, baina ez dira guztiz biribilak, nire ustez. Zorionez, “Monster: The Jeffrey Dahmer Story” estreinatzearekin batera nire iritzia guztiz irauli da, honakoa Ryan Murphyk sorturiko proposamenik biribilenetarikoa iruditzen baitzait.

Gaizkia pertsonaien bidez erretratatzeari lan liluragarria iruditu izan zait beti. Ikusle modura, benetan existitu den (ala ez den) pertsonaia ilun eta beldurgarri baten garapenaren testigu izatea itzela iruditzen zait, baina baita arriskutsua eta oso zaila ere. Hamar ataletan horrelako munstro batekin enpatia sentituz gero, eremu oso ilunetan sartzeko aukera egongo litzateke zuzendarien aldetik eta moralki zalantzarik izango litzateke trataera hori.

Aldiz, lehen segundotik pertsonaia hori nazkagarria eta jasanezina egiten bazaigu, ez genuke bi atal ere iraungo telesaila ikusten. Ryan Murphyren abileziarik handiena justu erdibidean kokatu izana da; hau da, pertsona mespretxagarrri, ilun eta oso krudela dela une oro erakusten duen arren, bere gizatasunaren zertzelada txiki batzuk ere erakusten dizkigu –aitarekin duen erlazioa, garai hartan homosexuala izateak zer suposatzen zuen, bizi izan zuen bakardadea...–, eta bien arteko konbinaziori esker sortzen den enpatia (oso-oso)

Azken asteotan guztion ahotan dabilen «The Jeffrey Dahmer Story» telesaila ikustaldi marka guztiak gainditzen ari da: 701,37 milioi ordu 19 egunetan, «Bridgerton», «Stranger Things» edo «The Witcher» bezalako izenburuen gainetik. Arrakastaren arrazoiak ugariak izan daitezke, baina sentsazioa daukat benetako gertaeretan oinarritzen diren telesailak badutela tiradizo berezia, eta asko erakartzen gaituela sinestezinak diruditen istorioen atzean benetako protagonistak daudela jakiteak.



txikiaz lagunduta guztiz eramangarria egiten du telesaila.

Nabarmenezko beste alderdia biktimei eman dien ahotsa da. Era honetako *true crime* askotan hiltzailean zentratzen dira soilik eta berak egin dituen krimenetan morboa eragitean, biktimen izen-abizenak bazterrean utziz. Telesail hau biktimen horietako batzuetan zentratzen da guztiz, eta haien familia, bizilagun eta lagun bidez beraien testigantzen lekuko bilakatzen gara.


Peaky Blinders & The Real Peaky Blinders

Netflix/Amazon & Filmin

Aurkezpenik behar ez duen telesail ezagun eta arrakastatsua. Birmingham hirian girotua, Lehen Mundu Gerra amaitu berri. Gangster familia batek kontrolatzen du lurraldea eta zaldi apustuen lokala. Familia burua Thomas Shelby da, gizon azkar, kalkulatzailer eta handizalea. Hori dela-eta, bere negozioak –ilegalak jakina– zabaltzen hasiko da botere eta diru gehiagoren atzetik eta horrek arazo ugari sortuko dizkio.

Aipatzekoa da telesailaren irudi zainduaz gain musikaren erabilera, garaiko irudiak egungo musika piezekin uztartzen direnean sortzen den kontrapuntu bitxia nabarmenduz: Nick Cave (“Red Right Hand” abestiarekin irekitzen dira atalak) edo Arctic Monkeys, besteak beste.

Kasu honetan ere fikzioan ikusten ditugun pertsonaia horiek badituzte ordezkariak



bizitza errealean. Filmin plataformak estreinatu berri duen “The Real Peaky Blinders” dokumentalean ikus daiteke hori. Birminghamen eta beste hiri industrial batzuetan XIX. mendean sortu zen taldeen mugimendua aztertzen duen lana da. Non dago benetako “Peaky Blinders”-en jatorria? Birminghamen XIX. mendearen amaieran sortu zen eta polizia erreforma eta gizarte erreforma handiek zapaldu zuten kaleko talde jendetsuen fenomenoan dago Steven Knightek sortutako telesail bikainaren haztegia.

When They See Us & The Central Park Five

Netflix

1989ko apirilaren 19an, Trisha Meili izeneko emakume bati eraso egin zioten New Yorkeko Central Park ezagunean; bortxatu, jipoitu eta sasi artean abandonatu zuten. Ordu batzuk lehenago, 14-16 urte bitarteko gazte batzuk –beltzak eta latinoak– parke berean ari ziren harriak botatzen, txirringulariei iseka egiten eta gaiztakeria txikiak burutzen.

Gazteak bihurrikeria txiki batzuegatik atxilotu zituzten, baina poliziak, esku artean kasu bereziki mediatikoa zuela konturatu zenean –Trisha Meili-rena alegia–, froga gehiegirik izan gabe ere, bost gazte horiei emakumezkoaren eraso basatia leporatu zien. Horrela hasten da Central Parkeko Bosten amesgaiztoa: Kevin Richardson, Antron McCray, Raymond Santana, Yusef Salaam eta Korey Wise, New Yorkeko justiziarren historian inoiz egon den kasurik polemiko eta arbuia-garriena.

“When They See Us” izeneko telesail latzean, “Selma” filmaren zuzendariak berriro frogatu digu injustizia soziala eta zapalkuntza bezalako gaiak



Lehen orrian goian «Peaky Blinders» telesailaren argazki muntaketa, eta behean «The Jeffrey Dahmer Story» telesailaren fotograma. Orri honetan, goitik behera: «When They See Us», «The Act» eta «Efterforskningen».



tzen du. Gazte hauek guztia (eta guztiak) aurka dutela (dituztela) ohartzen gara eta etorkizuna beltz kolorez marraztuko duten susmoak pizten hasten dira geure garunean.

AEBetako sistemaren arrazismoa eta ustelkeria dira telesailari bereziki sostengua ematen dioten bi zutabeak, baina baita nola Ipar Amerikako gizartea kontakizunaren harrapakin bilakatzen den, egiazkoa izan ala ez. Kontakizun hori pantaila txikira eramanaz, lau zatitan banatu dute eta bertan galdeketaren gaua, epaiketa, erreformatoretik pasatu zireneko urteak eta baita horietako batek –Korey Wise-k– kartzela barruan bizi zituen urte beldurgarriak ere islatu dituzte.

Gizarte kritika burutsuari, estetika boteretsuari, narrazio eraginkorrari eta interpretazio bikainei esker, ekoizpen hau Netflix-ek estreinatu duen telesail onenetarikoa dela esango nuke.

The Act & Mommy Dead and Dearest

Amazon & HBO

Patricia Arquette eta Joey King-en interpretazio lan ikaragarriei esker eta Münchhausen sindromea ardatz hartuz, benetako kasu batean oinarritzen den istorio honekin zur eta lur geratuko zara. Gaindituta, hunkituta, beldurtuta, txundituta eta harrituta amaituko duzula ohartarazten dizut. Istorio makabro eta lazgarria da. Erantzuteko oso zailak diren galdera asko geratuko zaizkizu garunean.

Efterforskningen & Into the Deep

Movistar & Netflix

Kopenhage, 2017ko abuztua. Poliziak Kim Wall izeneko kazetari suediar baten desagerepenaren salaketa jaso du. Bera-

jorratzeko gaitasun berezia duela. Hasierako sekuentzia simple baina eraginkor batzuei esker, adibidez, protagonistak ziren bezala ikus ditzagun lortzen baitu; auzo xumeetan bizi ziren nerabe soilak, bakoitza bere adinari dagozkion egone-

zinekin, baina bihotz onekoak eta batez ere bizitza osoa aurretik duten pertsonak.

Garai hartako testuingurua ere ezin hobeto jorratua dago. Lehen atalean, adibidez, lehen kolpean, bizi zen egoeraren lekuko bilakatzen gara. Telebis-

tan Donald Trump ikusten dugu; 80ko hamarkadako irudiak dira. Heriotza zigorra berriro jartzearen aldeko adierazpenak jaurtitzen ditu eta 85 milioi dolar ordaindu ostean, mezu berbera zabaltzeko intentzioz prentsan iragarki bat argitara-

ri buruz dakigun azken gauza da itsaspeko batean igo zela, bertako jabea elkarrizketatzeko asmoz. Handik ordu gutxira, itsaspektoa hondoratuta aurkitzen dute eta kapitaina erreskatatzea lortu. Ez dago, ordea, kazetariaren arrastorik, ezta froga erabakigarriarik ere, eta adierazpenak oso kontraesankorrak dira. Hortik aurrera, kasu misteriotsu horren ikerketaren xehetasunetan murgiltzeko aukera ematen du telesailak eta, jakina, baita “Into the Deep” dokumentalak ere.


Fikziozko moldaketa “Borgen” filmeko gidoilariaren eskutik iritsi da. Ez pentsa, ordea, akziozko thriller frenetiko bat ikusiko duzunik. Ikuspuntua edo sortzaileen intentzioa ez baita “errudunaren bila” formula erabiltzea, polizia ikerketa neketsu eta korapilatsuaren zentratzea baizik. Kasu sendo bat eraikitzeko frogak behar dituen fiskalaren, erantzun bila dabiltzan gurasoen eta titularren gose diren komunikabide presiopean aurrera egiten ari den ikerketa. Interesgarria eta harrigarria oso.

The Staircase & Soupçons

HBO & Netflix

True crime motako dokumentalen zaleak garenontzat, Jean-Xavier de Lestrade-ren “The Staircase” (2004) klasiko bat da zalantza izpirik gabe, generoaren barruan maisulana. Bi proposamenak ikusteko gogoia baduzue, lehenik fikzioarekin hastea gomendatzen dizuet.

2001eko abenduan, poliziak Michael Peterson idazlearen deia jaso zuen. Bere emaztea konorterik gabe zegoela zioen Ipar Carolinako bere etxean, eskaileretatik behera erori omen zelako. Minutu batzuk geroago berrirohots egin zien, emakumea jada hilda zegoela esanez. Antonio Campos-ek sortutako fikziozko telesail



«The Staircase» eta «A.C.S.: The People v. O.J. Simpson», «true crime» motako telesail eta dokumentalen bi adibide bikain.

hau kasu hori ardatz hartu eta gertatu zena azaltzen saiatzen da. Horretarako, lehen mailako aktore zerrenda erabili du: Colin Firth, Toni Collette, Juliette Binoche edo Michael Stuhlbarg, besteak beste.

Telesaila bikoteen eta familien sekretuei eta gezurrei bu-

ruzko azterketa psikologiko sakon eta liluragarria iruditu zait. Fikzioaren elementuez baliatuz, ezin hobeto pantailaratu du Antonio Camposek istorio hau, interpretazio lanez harago, muntaia eta egitura narratiboan ere indar handia jarritz.

A.C.S.: The People vs O.J. Simpson & O.J.: Made in America

Disney

Fikziozko telesaila gomendatu nahi dizuet, hasteko, dirudien baino askoz ere interesgarriagoa delako. Egia da O.J. Simpson-en kasua denboran hain gertu izateak ekoizpenaren

aurka jo dezakeela, hainbat gertaera eta datuk sortu beharreko sorpresa uneek ez gaituztelako hainbeste harrituko. Halere, gertaturikoaren berregite guztia hain dago dotore filmatua eta xehetasun guztiak azken muturreraino zainduak, non AEBetan kasu honek bere garaian sortu zuen lilura guztia ulertzeko gai sentituko zareten. Ikuspuntu guztiak modu liluragarrian daude irudikatuak, hein handi batean aktoreen lan bikainari esker. Nabarmenezkoa jakina, Cuba Gooding Jr ezaguna, O.J. Simpson gorpuztu duena, John Travolta, Sarah Paulson, David Schwimmer, Connie Britton, Courtney B. Vance...

Esan daiteke, O.J. Simpson ia gutxienezkoa dela ekoizpen ho-

netan, gizakiari berari eta kriminari buruzko erradiografia aparta baita, sakonki aztertua, gainera. Arrazismoa, matxisismoa, bortizkeria poliziala, ustelkeria bezalako gaiak agerian uzten ditu.

Dokumentala, aldiz, maisulana iruditzen zait. Bost ataletan, O.J. Simpsonen gorakada ikusteko aukera izango duzu, izar bihurtu zen arte; eta batez ere, izan zuen erorialdi ikaragarriari buruzko errebaso sakona ikustekoa. Nola ikasi zuen gazte afro-amerikarrak bere mitoa eraikitzen futbol unibertsitarioan eta profesionalen; irudi hori mugaraino promozionatzen ikasi ere, AEBetako “beltz zuriena” bilakatu zen arte. Eta nola, bere emazte ohiaren hilketaren gauetik aurrera, amets hori betiko suntsitu z(u)en.

Hain erreala eta gordina, non Hollywooden gidoilari onenaren burutik irtendako istorio baten aurrean zaudetela sentituko duzun. Dokumentala ez baita epaiketan eta adibide zehatz horretan soilik zentratzen, garai hartako testuinguruan kokatzen gaitu, Ipar Amerikak bizi izan zituen une latzak mahai gainean jartzen ditu, adibide zehatz honekin talkan: aipaturiko arrazismoa, basakeria poliziala, aberastasuna eta pribilegioak, etxeko indarkeria, komunikabideen eboluzioa, erlijioa... Azken batean, “O.J.: Made in America” bilakatu da gizarte estatubatuarra azken 50 urteetan kezkatu duen ia guztiaren zortzi orduko azterketa ikaragarria. Teknikoki aparta, ezin hobe, “gutxierekin asko” filosofia ardatz duena. Handikeriarik gabe eta birsortze konplikaturik txertatu gabe, narrazio nagusia batik bat artxibo irudiek eramaten dute aurrera, baita elkarrizketatu desberdinen testigantzek ere. Irudien bilketa, sailkapena eta egindako muntaia lana aho zabalik geratzeko modukoa da.



Itziar Elizondo - @itziarelizondo
Harremanak Elkarte

Bizitza elikatu

A kaso gurea bezalako gizarteetan ahalegin handirik egin behar ez dugunez gosea asetzeko, hura beste leku batzuetara desbideratzen

dugu. Hala, niaren aterpean hamaika gose proiektatzen ditugu gure ezdeusa despistatzeko: betiko jakin, atsegin, diru edo ondasun goseari gehitu beharko zaizkie egungo sareetakoak, *like* eta *match* gose bezalakoak.

Gauzak horrela, janariak modu errazean eskuratze horretan distira guztiak ez dira urre. Elikagai ultraprozesatuak, gantz, azukre eta gatz indize altuak dituztenak, superkalorikoak izateaz gain merkeenak dira. Industriak diru asko inbertitzen du asmatzeko zenbatekoa izan behar den elementu horien kantitate zehatza kontsumitzailea bere zaporearekin engantxatzeko. Horri *bliss pont* deritzaio, Howard Moskowitzek sortutako

terminoa. “Zoriontasun puntu” hori gutxi balitz bezala, plazera pizten duten produktu industrial horiek jaten ari garen baino kaloria gutxiagoko sentazioa eragiten digute. Bestalde, gure bizitza estiloak ere ez du laguntzen. Gero eta denbora gutxiago ematen dugu sukaldean elikagai freskoei jakiak prestatzen, eta gero eta gehiago deitzen dugu janaria etxera ekar diezaguten.

Laburbilduz: produktu merkeak, adiktiboak eta osasunerako kaltegarriak gero eta gehiago kontsumitzen dira, horrek osasunean eta planetan dituen ondorioetan pentsatu gabe. Izan ere, gure elikatzeko moduak planeta eraldatzen du, eta beraz horretan erabakitzen duguna ez da neutrala.

Esaterako, jarraituko al dugu gure haragi gosea martxa honetan asetzen? Munduko azientek urtero berotegi efektuko 8.000 milioi tona

gas botatzen dute atmosferara.

Abeltzaintza industriak larreetarako eta landaredi-soroetarako lur asko behar du animaliak elikatzeko, eta horrek basoen soiltzea dakar. Zuhaitzak desagertzean, atxikita duten CO₂a atmosferara askatzen da berotegi gas gehiago eraginez. Eta azkenik, ustiapen intentsiboaren ereduak lurzorua eta urak kutsatzen dituzten simaur kopuru izugarriak sortzen ditu.

Gobernuek nekazaritza ustiategi txikien aldeko apustua egin beharko lukete, monolaborantzako landaketa handien gainetik. Hau da, irabazien aurretik jartzea pertsonen eskubideak, ekoizleenak eta kontsumitzaileenak, eta planetaren babesak.

Eta guri dagokigu bizitza beste modu batean elikatzeko, egungo kontsumo ohiturak zalantzan jarritz. Kontrakoa kamera geldoan suizidatzea da, gizabanako gisa orain, planeta gisa etorkizunean. •



Donostiako El Eskondite Tabakalera espazioan aurtengo urtarrilean ateratako argazkia.

Jon URBE | FOKU

{ koaderno } Joana Garmendia

Fikzioa, errelatoa eta lagun minak

Maiteminak jota, amaitu berri den harreman batetik onik ater nahian, nahi eta ezinean, trisean oker kokatutako pieza sentitzen da, munduak eta mundutarrok ezer pasatu ez b-

litz bezala aurrera egiten dugun bitartean. Martinek esan dio ulertzen duela, eta aholkatu dio egiteko apnea: arnasa fuerte-fuerte hartu eta gero eutsi, uretan murgil egin eta korrontek eraman dezala utzi. Jon Benitoren “Tetris” ipuineko pertsonaiak dira (2022, Lagun minak).

Psikologo batek tetrisarenaren antzeko metaforarekin azaldu zidan behin terapiak nola funtzionatzen duen: askotan ez dakizu pazientearen galderei zuzenean erantzuten, ez dakizu zerk sortu dizkion zauriak eta zerk konponduko dizkion minak, baina probatzen duzu hemendik eta probatzen duzu handik, eta halako batean, besteak baino garrantzitsuagoa ez zirudien gai bati buruz ari zaretenean, zerbaitek egiten du klak: oker zegoela akaso ez zenekien pieza bat bere hutsunean kokatu da.

Ez dizuet esango literatura terapia denik, baina irakurtzean ere izaten da tetris momenturik. Zutaz ezer ez dakien liburu batean irakurtzen duzu zuk hitzetara ekartzen sekula asmatu ez zenuen min hura, hizkuntzaren lerroaren azpitik azkura egiten dizun desira ho-

ri, inori konfesatuko ez zeniokeen esperantza baldar hau. Eta, zurian beltz, hitzetan jarriak ikusten dituzunean, beste zerbait dirudite, nahiz eta hain diren zu. Fikzioak bidea egiten laguntzen die ondo kokatu gabeko sentimenduei.

PIEZA-KOKATZEA

Annie Ernauxen “Pasio hutsa” irakurtzen izan nuen inoiz izan dudan pieza-kokatze bortitze-netakoa: entzun ere egin zela esango nuke, krak. Benitok berak gomendatuta irakurri genuen liburua, irakurle taldean, hara kontuak zer diren.

“Lagun minak” irakurtzean ere gertatu zait, baina beste era batean. Liburu honetan bada ekintza handiez eta konbikzio irmoez haragoko gu bat; gu intimoago bat. Ez dakit ondo esaten zein den gu hori, zerk lotzen gaituen gu horretara: ez dakit den maitatzeko modu bat, ez dakit den bakardadea, den bizitza, den borroka, den toki bat edo denbora bat. Esango nuke liburu hau badela gure belaunaldiaren errelatoan pieza batzuk txukuntzeko saiakera, eta ederki asmatzen duela horretan.

Inork ez zigun esan hau erraza izango zenik. Bidea egiteko eta piezak kokatzen laguntzeko, hor dira psikologoak, hor da fikzioa, hor ditugu lagun minak. •

Zutaz ezer ez dakien liburu batean irakurtzen duzu zuk hitzetara ekartzen sekula asmatu ez zenuen min hura, hizkuntzaren lerroaren azpitik azkura egiten dizun desira hori, inori konfesatuko ez zeniokeen esperantza baldar hura...

«Batzuetan unibertsitateari ahaztu egiten zaio arte ederrak beste edozein jakintza arlo bezalakoak direla»

Arte Ederren Fakultateko dekanoren berria da Ismael Mante-rola Izpizua zumaiarra. Valentziako Unibertsitatean Arte Historia ikasketak egin ondoren, EHUn Arte Historiako doktoretza lortu zuen. Artearen Historia irakaslea da eta ikerketa ere ohiko jarduna du. Besteak beste, hainbat erakusketa antolatu ditu 2006. urtetik; arte kritika idatzi izan du “Egunkaria”, “Berria” eta GARA egunkarietan, eta duela bost urte nabarmendu beharreko saiakera bat argitaratu zuen euskal artearen munduaren inguruko hainbat kezka eta gogoeta plazaratuz: “Maite ditut maite”.

Honakoa Manterolaren ibilbidearen laburpen bat baino ez da; eskarmentu handia du, beraz, arte munduan, eta irakaskuntza eta ikerkuntza jardunik gogokoenak dituen arren, kudeaketa lana ere denen artean banatu beharreko ardura dela dio. Bere karguak dituen mugen jakitun, ez du aldaketa handirik eragitea espero eta euskal artearen inguruko kezka ez zaizkio berehalakoan uxatuko, baina ez ditu baztertuko. Aurreko zuzendaritza taldearen ildotik, ikasleekiko harreman onari eutsiko dio.

Eskarmentua badaukazu bai irakaskuntzan, bai ikerkuntzan. Ez dakit kargu horretarako fakultatea ondo ezagutzea ezinbesteko baldintza den, baina zure kasuan hala da, ezta?

Bai, hala da, batez ere urte asko daramatzadalako hemen. Ondo ezagutzen dut, eta zuzendaritza taldean ere egon nintzen bere garaian; beraz, hau niretzat ez da zeharo berria. Ez da nire gustuko kontua, baina baten batek egin behar du lan hau.

Nahiko orokorra da zuzendaritza karguak, ahal izatera, saihestea, ezta?

Bai, ez da baloratzen den gauza bat eta, orduan, jendeak ez du nahi izaten horrelako gauzetan sartu. Normala da.

Irakaskuntza eta ikerkuntza nahiago dituzu, beraz, lan administratiboa baino.

Nik irakaskuntza nahiago dut, eskolak ematea gustatzen zait, eta ikerkuntza ere bai, baina egia da hau ere gure eginkizunen barruan dagoela, eta hori beharbada jendeari ahaztu egiten zaio, irakasle eta ikertzaile izateaz gain gestioa erraztu egin behar dugula. Ardurak banatu egin behar dira, zeren batzuetan, banatu beharrean, beti berberak daude gauza hauetan.

Zuzendaritza taldearen gaitasuna ez dut zalantzan jarriko, jakina, baina ez dakit norainoko ahalmena izango duzuen ez bakarrik iragarri dituzuen asmoak gauzatzeko, baizik eta beste kezka batzuei legozkiekeen irtenbideak ere bultzatzeko.

Askotan ez dago aukera handirik. Adibidez, momentu honetan gure fakultatean arazo pila daukagu irakasleen egonkortasunarekin. Hori ez dago gure esku, ezin gara horrelako gauzetan sartu; baina egia da leku askotan, unibertsitatean behintzat, badela arazo bat: jende berriari edo gazteei ez zaie gauza handirik eskaintzen denbora asko pasatu arte. Orduan, zaila da, jendeak ez du egonkortasunik bere lanpostuan oso berandu arte. Eta guretzat bada arazoa, baina ezin dugu ezer egin.

Talde berriaren asmo nagusiak iragartzean esan zenuten aurreko lantaldeari esker Arte Ederren Fakultateak nazioartean eta jendartean presentzia

irabazi duela, eta zuek, ildo beretik jarraituz, areagotu egin nahi duzuela.

Gure asmoa da aurreko zuzendaritza taldeak orain arte egin duenari jarraitzea. Horiek zortzi urtean egon dira; denbora pixka bat eman dute, beraz, eta ahalegin handia egin dute gure fakultateak presentzia izateko bai unibertsitate barruan, bai jendartean. Izan ere, batzuetan unibertsitateari ahaztu egiten zaio arte ederrak hor daudela eta beste edozein jakintza arlo bezalakoak direla, ez direla bakarrik jakintza arlo dekoratibo bat, edo alaia, koloretsua... horrelako zerbait. Hau da, gure fakultatean ikerkuntza egiten da eta irakaskuntza eskaintzen da, eta hori batzuetan ez dago horren argi, gure ikertzeko moduak eta gure irakaskuntza moduak ezberdinak direlako. Orduan, askotan ikerkuntza edo hezkuntza baloratzeko irizpideek ez dituzte kontuan hartzen gure berezitasunak. Asko kostatzen ari zaigu azaltzea, eta nik uste dut aurreko taldeak lan asko egin zuela horretan, bai unibertsitateari, bai unibertsitatetik kanpo dau den beste erakunde batzuei; adibidez, hor daude akreditazio agentziak eta horrelakoak. Gu oso lotuta gaude gaur egun garrantzi handia daukaten beste erakunde batzuekin. Hor baloratu behar da Arte Ederren Fakultatean, edo arte ederretan, ikertzeko modu desberdin batzuk daudela, eta irizpide horiek kontuan izan behar dute hori. Adibidez, eta erraz ulertzeko, gure unibertsitateko curriculumetan garrantzi handia ematen zaie patentei. Guk patenteekin ez dugu lanik egiten, noski, guk beste kontu batzuk dauzkagu, hala nola erakusketa formatuak eta horrelako gauzak, eta askotan horiek ez dira baloratzen, edo ez dira behar bezala balora-

ISMAEL MANTEROLA ISPIZUA

ARTE EDERREN FAKULTATEKO DEKANOA

Irailean hartu zuen kargu berria, kudeaketa lanak, irakaskuntza eta ikerkuntza bezain gogoko ez baditu ere, denen ardura direla uste baitu.

Xabier Izaga Gonzalez



*«Leku askotan,
unibertsitatean
behintzat, bada
arazo bat: jende
berriari edo gazteei
ez zaie gauza
handirik eskaintzen
denbora asko
pasatu arte; jendeak
ez du
egonkortasunik
bere lanpostuan oso
berandu arte»*

tzen. Hori azaltzea ez da erraza, batez ere ikerkuntza akademiko tradizionalari oso lotuta dauden instituzioetan.

Kanpora begira, egia da gure fakultateak presentzia handia izan duela azken urteetan, batez ere itun asko dauzkagulako hainbat erakunderekin; hala ere, asko kostatzen ari zaigu kolaboratzea, adibidez, hiriko beste erakunde batzuekin, arte ederren museoekin... Askotan, hirian bertan, batez ere Bilbon, gauza batzuk antolatzen direnean, aurretik beste unibertsitate batzuk hartzen dira kontuan, eta gu, unibertsitate publiko moduan, pixka bat bigarren mailan gelditzen gara, eta hori harrigarria da unibertsitate publiko bakarra izanda. Horri aurre egitea kostatzen da. Asko dago egiteko; adibidez, hezkuntza munduan Eusko Jaurlaritzaren interlokutore naturalak gu izan beharrean, beste batzuk dira, esate baterako, Gasteizko goi mailako eskola bat, edo horrelako gauzetan eskumenik ez daukatenak. Gu, berriz, ez gaituzte aintzat hartzen. Horrekin lan asko egin behar da.

Zertan da gizartean duzuen presentzia hori?

Momentu honetan harrigarria da, zeren badauzkagu kolaborazio asko praktiketarako, ikerketarako, ikerketa proiektu askotan gaude sartuta... hori ere hala da, baina betiere adi egon behar dugu eusteko, ez bueltatzeko aurreko egoera batzuetara. Hor gaude eta lan egin behar da.

Duela bost urte, “Maite ditut maite” saiakeran zenbait kezka azaldu zenituen, horietako bat jendartearen eta arte ederren arteko distantzia, hain zuzen. Elkarrengandik aldentze

hori trantsizio garaian gertatu zela zenioen, eta instituzionalizazioaren ondorio izan zela neurri batean. Alde batetik, zuk diozunez, jende askok arte ederrak bigarren mailako zerbait gisa sumatzen ditu, aisialdi eta edergarri gisa. Baita zerbait elitista gisa ere? Eta, bestetik, artistek ere ez ote dute beren burua ez dakit elitistatzat baina jendartearengandik urrun?

Bai, urruntze bikoitza da. Guk ikerketa egiten dugu, beste edozein jakintza arlotan bezala, eta beste alde batetik bada nolabaiteko korrante handi bat, askotan komunikabideek bultzatzen dutena, arrarotasunaren inguruan, salbuespen moduko bat, misteriotsua, berezia eta abar izatea bultzatzen duena. Ni ez nago batiere konforme ikuspuntu horrekin, eta gure asmoa beti da normalizatzea. Jendarteko zati bat gara, jendartean integratuta gaude eta jendarteak horrelako zerbait behar duela uste dugu.

Kezka horrekin lotuta, “Maite ditut maite” saioan edo lehengo urtean “Jakin”-ek eskatu zidan artikulua batean agertu nuen kezketako bat zen jendartea baino gehiago jendartearen zati handi batek, tartean botere politikoek edo, artearen industriara jo duela, eta unibertsitatean bertan ere eskatzen zaigula enpresekin lan egitea. Tira, batzuetan enpresekin jakintza lantzea posible da, baina beste batzuetan jakintza jakintzagatik egin behar da; esan nahi dut ez dela instrumentalizatu behar. Hor ni ikusten ari naiz industria kulturalaren ideia, diseinuarekin, edo zinemarekin, horrelako gauzeekin. Ez dut esaten industriarekin ezin garela elkartu, jendeak lan egin behar du, ez dago horren dudarik, baina ez du helburua izan behar. Helburua ez da industria, baizik



eta jakintza, ikerketa eta sormena, eta gero praktikoa baldin bada, primeran. Baina ez du baldintza izan behar. Momentu honetan unibertsitatea orokorrean horrelako utilitarismo batean sartuta dago, eta jakintza toki izan beharrean, jakintza praktikoarekin toki bihurtzen ari da. Eta niretzat kezka da. Askotan arte ederrei buruz orokorrean hitz egin be-

«Unibertsitateen eta museoen arteko harremanak ere ez dira errazak, ez dago borondate handirik elkarrekin gauzak egiteko, askotan bizkarra emanda bizi gara»

harrean, diseinuari buruz edo zeozer praktikoa daukanari buruz hitz egiten da, etekin bat ateratzeko pentsatutako zerbaiti buruz.

Beste susmo bat ere agertu zenuen zeure saioan: euskal kulturak kanpoan utzi duela artea, edo arteak euskal kulturatik kanpo ikusten duela bere burua.

Bai, momentu batean, urte batzuetan behintzat egon zen horrelako kezka bat, ikusten genuelako lehen zuk aipatu duzun zerbait, arte munduko jende asko, edo arte mundua oro har, elitizazio prozesu baten ondoren urrundu egin zela euskal kulturatik. Euskal kulturaren lankidetzaz zegoen, musika literaturarekin eta, baina artea beti gelditzen zen kanpoan, eta nik kezka bat neukan. Gaur egun ere ikusten dut pixka bat horrelako zerbait gertatzen dela.

Museoekiko eta artistekiko lankidetzaz hitzarmenak dituzue. Zure beste kezketako bat euskal artearen lurraldetasunari lotutakoa zen, museoen arteko eta artista sareen arteko harreman falta sumatzen zenuelako, oso nabarmen Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren artean.

Bai. Momentu honetan guretzat kezka bat da. Unibertsitateetik begiratzuz gero ere, Ipar Euskal Herriko unibertsitatearekiko harremana eskasa da, eta Hegoaldeko beste unibertsitateekikoa ere, unibertsitate publikoarekin, NUPekin... ez dago gaizki, baina ez da oso lankidetzaz estua. Eta kezkagarria da; sare bat osatu beharrean, alderantziz gertatzen ari da. Badaude azken urteetan posible egin diren horrelako ekimen batzuk; adibidez, Uharte zentroak abian jarri zuen berezko titulu bat, eta hor NUP eta EHUK elkarrekin dihardute lanean. Horrelako gauzek zeozterako balio dute, baina nik uste dut gehiago behar dela. Eta museo sarea zaila baldin bada, guretzat hor sartzea ezinezkoa da, hor zerbait erabaki daude eta guk ez daukagu hor sartzeko ahalmen handirik; orduan, zaila

da. Baina bai, pena da ez izatea kolaboratzeko horrelako erraztasunik museoan artean, ezta unibertsitatean artean ere. Gainera, unibertsitatean eta museoan arteko harremanak ere ez dira errazak, ez dago borondate handirik elkarrekin gauzak egiteko, eta askotan bizkarra emanda bizi gara.

Erabaki politikoen joeraren ondorio?

Nik uste dut hor erabaki batzuk behintzat politikoak direla, horregatik esaten dut gure zeregina oso mugatua dela, zeren ez bada behintzat beste alde batetik horretarako erraztasunik ematen, zaila izango da aldatzea.

Lantalde berriaren asmo edo erronkei dagokienez, ikasleekiko harremanak ere areagotu nahi omen dituzue.

Egia da aurreko urteetan ikasleekiko komunikazio bideak zabalik egon direla eta horretan asko baloratzen dut aurreko zuzendaritzak egindako lana. Hala ere, oso momentu gogorak tokatu dira bat-batean pandemiaren garaian. Zaila izan da ikasleekin harremanei, komunikazio bide batzuei eustea, etxean zeudelako edo beste kontu batzuegatik.... Konplexua zen egoera, guretzat ere espazioen kudeaketa, osasun baldintza batzuk bermatzea... hori dena zaila izan da. Aurreko urtean ikusi genuen egoera pixka bat normalizatu egin zela eta aurten zeharo normalizatu da, ez dago aparteko osasun baldintzarik eta ikasleekiko harremana ere uste dugu normalizatzen joango dela. Azken urtean oso aktibo daude, ikasleen kontseilu bat sortu da, oso interlokutore zuzena da eta oso leiala; esan nahi dut beraiek eskatzen du-

tela komunikazio hori, hau da, lan egiten dutela. Espero dugu beraiekin elkarlanean jarraitzea eta, dudarik gabe, ateak beti zabalik dauzkate, beren proposamenak egin eta kezkek eta abar azal ditzaten.

Eta solas honetan zehar agertu diren kezkek eta goetak fakultatean ere badaude? Ikasleekin partekatzen dituzue?

Bai. Ikasleekiko harremanak oso zuzenak dira gure fakultatean, ikasketa praktikoak direlako; orduan, kezkek konpartitzen ditugu, nahiz eta gauza batzuk ez dauden gure esku, hori ere esan behar da. Izan

«Euskararen erabilera askoz handiagoa da irakasleen artean ikasleen artean baino, eta hori niretzat harrigarria da, uste izatekoa baita gazteen artean, kopuruz behintzat, gehiagok dakitela euskaraz»

ere, gauza bat da fakultateko zuzendaria izatea eta beste bat errektorea izatea, bi gauza ezberdin dira. Gero, askotariko errealitateak daude, batez ere ekonomikoak, eta eskaera batzuei erantzutea batzuetan guretzat ezinezkoa da, guk ez daukagulako baliabide ekonomikorik; espazioa, adibidez, beti da arazo gure ikasle eta irakasleentzat. Askotan zaila izaten da erantzutea beraien eskakizun oso konkretu batzuei, baina oro har eskakizun zabalei, eurek parte hartu nahi duten horiei dagokienez, nik uste dut hobeto egin dela azken zortzi urteetan eta espero dut berdin jarraituko duela.

Euskara da zure beste kezketako bat. Euskal artearen eta euskararen arteko lotura, edo lotura eskasa, zehazki.

Guri dagokigunez, niretzat behintzat, konturik mingarriena ikerketa da. Euskaraz ez da egiten, ez da bultzatzen, ikasleak gradu bukaerara iristen dira eta euskararen mundua bukatu da. Gero ikerketan hasten badira, mundu hori gaztelaniaz da, bai ikasleak fakultate-tik arte praktikara irteten direnean, bai unibertsitatean bertan ikertzen jardun edo jarraitu nahi baldin badute, edo beste edozein erakunde artistikotan. Nire kezkek berdin jarraitzen du: nola indartu euskara ikerketan.

Era berean, kezka orokor bat dago, ez nirea bakarrik, baizik eta gizarte osoarena: erabilera. Horrelako inkesta batzuen arabera, erabilera askoz handiagoa da irakasleen artean ikasleen artean baino, eta hori niretzat harrigarria da, kontuan izanda alderantziz izan behar lukeela, uste izatekoa baita jende gazteak, kopuruz behintzat, gehiago dakiela euskaraz. Eta hori, erabilera nola sustatzen den jakitea zaila da eta beharbada laguntza sozio-linguistikoa behar genuke, horrelako zerbait beharko litzateke nire ustez, eta baliteke honezkero zerbait pentsatzen aritzea Unibertsitateko Euskara Errektoreordetzan.

Zuzendaritza taldeko lagunekin harreman ona izango duzu, noski.

Aurreko zuzendaritza taldeko jende asko gelditu da nik zuzentzen dudan talde honetan eta benetan eskertzen dut hori. Berria ni naiz eta ez beraiek. Arantza Lauzirikaren taldearen jarraipena izatea da gure asmoa.





GAUR8 ireki gure leihoa

Onddoak aldarrikapenak balira

Miren Azkarate
Badiola

Mendiz inguratutako herri batean bizitzeak azkenean mendia maitatzera eraman nau. Tira, horrek eta nire bi lagunek: Xerpak eta Erbiak. Haiekin as- tean behin gutxienez mendi buelta txi- kiak ematen baititut urte pare batetik gaur arte. Denari atera behar omen zaio bere alde ona eta nik oraingo ho- netan mendia deskubritu izana esker- tu behar diot pasatu dugun “mundu mailako pandemiari”. Gure agintari- ek bi orduko ateraldiak baimendu zizki- gutenean hasi nintzen eta orain ezin dut inondik inora ohitura hau albo ba- tera utzi.

Esan daiteke maiz ibiltzen naizela inguruetan eta nahiko ongi ezagutzen ditudala etxe ondoan ditudan zenbait txoko. Bai behintzat jakiteraino zenbat jende dabilen normalean bertatik. Eta badira garai batzuk nabaritzen dena jende gehiago ibiltzen dela; neguan elurra egiten duenean, esaterako, eta batez ere udazkenean. Bueno, udazke- nean ez, barkatu, onddo garaian. Apar- kalekuak hutsak egotetik, Mister Be- an-en autoa ere kabituko ez litzatekeen egunak dira hauek. Horre- la, errepide bazterrak eta edozerk ba- lio du autoa uzteko onddo bila doaze- nentzat. Sikiera, autoak, karabanak eta

furgonetak partekatuko balituzkete... Onddoen osasunarengatik bada ere, ezta?

Izugarria da egunotan ikusten ari naizena, zur eta lur uzten nauten iru- diak dira, benetan. Ez naiz ni izango norberaren afizio eta aisia zein izan behar den erabakiko duena. Eta ez naiz kexatzen den horietakoa onddoak opari jasotzen dituenen; esan bezala, alde ona ikusten ere badakit. Baina ho- rrelako jendetza mugituko balitz herri honetan pentsioen alde, edo etxegabe- tzeen aurka, edo maionesaren prezioa- ren igoeragatik... Beste kuku batek jo- ko liguke Euskal Herrian! •

Ikastolen alde

Antton Izagirre

Garai nahasiak eta gatazkatsuak bizi ditu irakaskuntzaren mun- duak Euskal Herrian. Hori aitort- zea ez da gauza berria, izan ere, noiz ez da egon irakaskuntza sistema jo- puntuan gure lurraldearen luze-zabalean. Garbi dago gure gizarteak irakaskuntza- ri funtzio anitzak aitortzen dizkiola eta badirudi zenbaitetan han eta hemen sor- tzen diren arazo, gabezia, ezintasun eta gatazka sozial, politiko, kultural askoren erantzukizuna eskola bidezko heziketan jartzen dugula. Euskal hezkuntza sistemaren adar na- gusietakoa osatzen duten ikastolek ere erronka hori dute. Historikoki funtzio ai- tzindaria bete izan dute Euskal Herriari nazio gisa dagokion hezkuntza sistema propio, euskalduna defendatu eta eraiki- tzeko eginkizunean eta gaur egun ere funtzio bera dagokie. Eginkizun horretan

izan dituzten eta aurkitzen ari diren ozto- poak, trabak eta erasoak ez dira gutxi, bai frantses eta espainiar estatuen aldetik, bai lurralde desberdinetako administra- zioen aldetik. Azkenaldi honetan ere ikusten ari gara, administrazioak ezartzen dizkien oztopo- ekin batera, badirela eskuin kutsuko eta ezker usteko sektoreak, ikastola kontzep- tu modura, proiektu, erakunde edo mugi- mendu modura desagerrarazteko jokoan ari direnak. Ez dira falta komunikabidee- tan edo sare sozialetan haien desagertzea irudikatzen dituzten iritziak eta egitas- moak. Ez dute sekula izan erraz baina orain bi- zi dituzten eta datozen garaiak ere ez dira errazak izango. Banaketa administratibo- ak ezarritako lege, dekretu edo debekuen bidez irakaskuntza arautuaren muga zu- rrunetan kateaturik, historikoki eraiki-

tzen joan diren ezaugarriak –euskaldun- tzeko murgiltze eredua, Euskal Curriculu- ma, autonomia, nazio mailako antolake- ta–, Euskal Herria erreferente duen eredu propioa eraikitze-ko egindako apustua za- puzteko ahaleginetan ari diren asmo eta iritzi korronteak ez dira gutxi. Horren aurrean, garai batzuetan ikasto- len mugimenduak izan duen kemena apaldua, indarge eta kikildua dagoelako- an nago. Dagoeneko, ez da gutxi, baina ez da nahikoa kilometroak, Herri Urrats edo Nafarroa Oinezen jendetza biltzea. Bada garaia, Euskal Eskola Nazionalaren eta Euskal Hezkuntza Burujabearen zutabee- tako bat izan behar duen ikastola, kon- tzeptu gisa, proiektu, sare eta mugimen- du modura lehen lerrora ekarri eta “Ikastolak aurrera” aldarrikatzeko. Bada garaia. •

MIN KRONIKOA ETA USTE FALTSUAK

Pairamen kronikoaren inguruan burutik kendu behar diren bost ideia aletu ditu aditu talde batek

Bizkarreko mina, lepoko mina, burukoa, sorbaldakoa... Mina ohiko esperientzia bat da, gorputzeko edozein tokitan ager daitekeena. Estatu espainolean, mediku kontsulten %40 eta 80 artean minarekin lotuta daude, eta biztanleriaren %17 min kronikoarekin bizi dela kalkulatzeko da, Estatuko Osasun Zuzendarien Elkarateak emandako datuen arabera. Gutxienez hiru hilabetez agertzen denean hartzen da min kronikotzat. Ikuspegi ezberdinetatik begiratuta, UOC Kataluniako Unibertsitate Irekiko aditu talde batek min kronikoaren inguruan dauden uste faltsuak aletu ditu.

Garunak jokatzeko duen papera ekarri dute gogora lehenik eta behin, minaren esperientzia horretan nola eragiten duen azaltzeko. Ruben Nieto min iraunkorrean aditua den psikologoak eta UOCeko Psikologia eta Hezikuntza Zientzien Ikasketetako irakasleak azaldu duenez, «mina esperientzia subjektibo bat da, garunak hainbat faktoreren elkarreraginetik eratzen duena, eta horien artean psikologoek rol oso garrantzitsua dute». Horregatik, maiz uste izaten da min kroniko edo iraunkorra ez dela erreala.

Lehen uste faltsua: kausa fisikorik aurkitzen ez bada, pertsona mina asmatzen ari da. Batzuetan, identifika daitekeen kausarik ez aurkitzeak mina asmatua dela pentsaraz diezaguke. Ruben Nieto eta Mayte Serrat psikologoek, «Dolor y psicología: ¿por qué es necesario la persona especia-

lista en dolor?» liburuaren egileek, azaldu dutenez, «mina ez da borondatez asmatzen edo sortzen. Mina beti da erreala, eta pertsonak iritzia eman edo pentsa dezakeena alde batera utzita sortzen da».

Tradizioz, mina «eredu biomediko baten arabera ulertu izan da, ehunen kaltearekin lotuta, eta zenbat eta kalte handiagoa (zenbat eta nozizepzio handiagoa) orduan eta min handiagoa sentitzen dela interpretatu izan da. Neurozientziari esker, badakigu hori ez dela horrela», argitu du Serratek. Gorputz adar fantasmaren adibidea jarri du, pertsona batek jada ez duen gorputzeko zati batean mina hautematen duenean gertatzen dena, alegia. «Gorputz fisikorik gabe mina izan dezake, eta zati fisikoa hori balu bezain erreala da. Kontuan izan behar da nozizepzioa ez dela beharrezkoa mina sortzeko», gaineratu du psikologo eta fisioterapeutak.

MINA FISIKOA EDO PSIKOLOGIKOA DA
Adituek zehaztu duten beste uste faltsuetako bat da minak izaera fisikoa edo psikologikoa daukala. Azaldu dutenez, mina garunaren iritzi bat da, eta ez dauka zuzeneko loturarik jasari daitekeen kalte fisikoarekin; garunak egiten duen in-

Garunak ikasi egiten du zenbait sentsazio minarekin lotzen. Adituen esanetan, «garunari harreman horiek birkontzeptualizatzen irakastea da kontua, berriro hezte»

Genero ikuspegia arlo guztietan txertatzea eta gaixoaren ingurukoak tratamenduan inplikatzeko dira espezialistek aipatzen dituzten beste gakoetako bi

 **OSASUNA / GAUR8**

Mediku kontsulta ugariaren atzean dago. Bizitza eta munduari begiratzeko modua alda dezake min kroniko batek. Hala ere, zenbait uste faltsu eratu dira gai honen inguruan. UOCeko adituek bost identifikatu eta zenbait argibide eman dituzte: mina ez da asmatzen eta faktore psikologoek pisu handia dute.

terpretazioarekin baizik, lesio potentzial edo erreal baten aurrean, zenbaterainoko mehatxua edo arriskua ekar diezaiokkeen neurtzean.


Ruben Nietoren esanetan, ez dauka zentzurik minaren izaera polarizatzeak –fisikoa edo psikologikoa–, «minaren esperien-

tzia bakarra eta pertsona bakoitzarentzat modu bakarrean eraikia den heinean, faktore anitzen elkarreraginetik abiatuta. Eta faktore psikologoek minaren esperientzian pisu handia izan dezaketen arren, horrek ez du esan nahi mina soilik psikologikotzat har daitekeenik».

Minaren esperientzia modulatzeko duten faktore psikologiko horien artean gogo aldarte dago, eragina izan baitezake min hori esperimendatzeko moduan.

«Triste sentitzen bagara, adibidez, gauzak modu negatiboa ikusteko joera izango dugu, eta gudan eragin handiagoa izango du minak. Zentzu horretan, ‘pentsamendu katas-trofikoak’ ager daitezke, hau da, uste izatea egoera hori (mi-

Min kronikoari buruz dauden pertzepzioak eta garunak berak edo egoera psikologikoak jokatzeko duten papera aztertutako UOCeko adituek.
GETTY IMAGES



na) aldarazterik ez dugula, gure pentsamenduen zati handi bat hartzea eta izugarritzat jotzea, benetan dena baino askoz okerragotzat. Pentsaera horrek lesionatzeko beldurra edo mina areagotu dezaketen jarduerak egiteko beldurra eragin dezake, eta azkenean okerrago sentiaraz gaitzakeen gurpil zoro bat sortzen da», dio UOCeko irakasleak. Era berean, estresak mina areagotu egin dezake eta minak estresa sor dezake.

MINAREN NEUROZIENTZIA

Pairamen kroniko horien inguruan sarri uste da mina gutxitzen laguntzeko ezin dela ezer egin, eta ez da egia. Nietok eta Serratek horren azalpena eman dute. Gorputzeko ata-

len bat arriskuan dagoenean mina izatea, normala ez ezik, desiragarria ere bada. Baina biziraupen eta babes funtzio hori betetzen ez duenean, bere zeregina betetzeari uzten dio. Kasu horietan, funtsezkoa da mina sentitzen duen pertsonaren lana.

«Minak ez du esan nahi, nahitaez, ehunetan kalterik dagoenik, baina garunak ikasi du zenbait sentsazio eta pertzepzio minarekin lotzen. Garunari harreman horiek birkontzeptualizatzen irakastea da kontua, berriro hezte. Eta birkontzeptualizazio hori minaren neurozientzian heztearen bidez egin daiteke, asoziazioak zer mekanismoren bidez gertatzen diren azalduz eta hainbat teknika eta ariketa landuz», azpimarratu du Mayte Serratek.

Era horretan, burmuinak interpretatzen badu benetako kaltea izanda ere ez dela beharrezkoa aparteko ezer egitea, ez du minik sortuko. Horren adibide gisa jarri du gure gorputzean ubeldu bat aurkitu baina kolpea non edo noiz hartu dugun gogoratzen ez dugunekoa. «Minaren esperientzia ikaskuntza prozesu baten parte dela ulertuta, deskasi egin daiteke, heziketa egokia jasotzeko eta burmuinak asoziazio kontzeptu berriak eraikitzeko, gure biziraupenerako beharrezkoa den min funtzionala sor dezan eta bere zeregina betetzen ez duen min iraunkorra, aldiz, ezabatu dezan».

EMAKUMEEN KONTUA DA

Fibromialgia bezalako gaixotasun batzuk batez ere emakumeekin lotzen dira, eta errealtate horrek min kronikoa edo iraunkorra emakumeek bakarrik pairatzen duten esperien-


tzia dela uste izatea ekar dezake. Hala ere, Nietoren eta Serraten arabera, gizonezkoetan fibromialgia bezalako gaixotasunen infradiagnostiko arazo bat dago, «agian gaixotasunak izaera femeninoa duelako usteak eragindako estigma sozialengatik eta gizonek minaren aurrean duten sendotasunaren estereotipoagatik. Premiazkoa eta beharrezkoa da genero ikuspegia eremu guztietan aplikatzea, eta minaren testuingurua ez da salbuespena».

INGURUAK EZIN DU EZER EGIN

Min kronikoari dagokionez, sarritan uste izaten da egoera bizi duen pertsonaren ingurukoek ezin dutela laguntzeko ezer egin. Psikologoaren iritziz, ingurukoek, beren portaeraren bidez, eragina izan dezakete minaren modulazioan inplikaturik dauden faktoreetan, eta horregatik, paper garrantzitsua jokatzen dute.

«Adibidez, mina duenak bere arazoa adierazten duenean inguruko norbaitek haren zeregina guztiak egiten baditu, eta beti egiten baditu, ziurrenik, nahita izan gabe ere, zera eragingo du, mina duen pertsonak jarduerak berriro egiten hasi nahi duenean zailtasun gehiago izatea. Saihestea ez da estrategia ona, konfrontazioa beharrezkoa da», azaldu dute Nietok eta Serratek.

Horregatik, garrantzitsua da hurbilekoak tratamenduetan inplikatzeko, mina duenak behar duen laguntzarekin aurre egin ahal izan diezaion egoerari. Mezuak eta oharrak ere garrantzi handikoak dira, eta, horretarako, beharrezkoa da minaren kronifikazioaren funtzionamendua eta hor esku hartzen duten faktoreak ondo ulertzea.



Luzaketak egitea, etxealdiak ekarri duen alde on bat. GETTY IMAGES

KEZKAK, MINAREN ERAGILE BERRIAK... IZURRITEAREKIN OKERRERA EGIN DU %70EK

Covid-19aren pandemiak ondorio nabarmenak eragin ditu min kronikoa pairatzen duten pertsonengan. UOCeko Osasunaren Zientzien eHelath Lab-en ikerlan baten arabera, aztertutako lagunen %70en egoera okertu egin da. Minaren intentsitatea, gertaeren maiztasuna eta eguneroko bizitzan minak duen interferentzia okertzen ikusi dute. Emaitezkerak erakusten dute okerrera egite horrekin lotuta egon daitezkeela laneko segurtasunik eza, etorkizunaren aurreko kezka, etxe berean elkarrekin bizi diren pertsonen kopurua, birusaren eraginez gertukoren bat hil izana edo kutsatzeko beldurra. Bestalde, minaren eragile berriak agertu dira. Lehen estresa eta eguraldi aldaketak ohikoenak baziren, konfinamendu garaian, etorkizunarekiko kezka, loaren arazoak, segurtasunik eza, pentsamendu negatiboak, tristura, bakardadea, sedentarismoa eta kutsatzeko beldurra aipatzen zituzten gaixoeak.

Pandemiak, bestalde, minari aurre egiteko moduak ere aldatu ditu. Alarma ezarri zenetik gaixoen erdiak baino gehiagok atsedena erabili dute, eta antzeko portzentaje batek medikazioaren kontsumoa handitu du. Formula biak kaltegarriak izan daitezke, Ruben Nieto ikertzailearen ustez. Alde positiboan, nabarmendu du %48,2k mina kentzeko tresna gisa hartu dutela luzatze ariketak egitea. Mina desagertzea zaila dela baina horri aurre egitea eta berarekin bizitzea posible dela gaineratu du. Bide horretan, esku hartze biopsikosozialen baliagarritasuna nabarmendu du, eta informazio eta komunikazio teknologiak tratamenduak errazteko eta jende gehiagorengana heltzeko tresna eraginkorrak izan daitezkeela ohartarazi du.



BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



EDMOND DE LABRADOR | THE J. PAUL GETTY MUSEUM

EDMOND DE LABRADORREN LANA EUSKAL HERRIKO ESTUDIOETAN

Edmond de Labradorrek, margolaria ikasketaz, harremana izan zuen XIX. mendeko 50eko hamarkadaren erdialdean Parisko giro bohemio-arekin. Bere lagunen artean Hippolyte Bayard zegoen, lehen argazki prozesuen aitzindari eta asmatzaileetako bat, eta margolaria Frantziako Argazkilaritza Elkartean sartu zuena. Edmondek, komertzialki izen horrekin ezagutu baitzen, argazki estudio bat ireki zuen Baionan 1856an, eta urte batzuk geroago beste bat ireki zuen Donibane Lohizunen. Argazkilari honengandik gaurdaino iritsi zaizkigun irudi apurak Ipar Euskal Herriko paisaienak eta erretratuak dira, batez ere «carte de visite» formatuan, artikulua ilustratzen duen "Dialogue de Basquaises" (1870 inguruan egina) eszenifikazioa kasu, The J. Paul Getty Museum-en dagoen argazki album baten parte dena.



EUSKAL HERRIKO GIDA ONLINE

IBILBIDEAK > MERKATARITZA
OSTALARITZA > TOKIKO TURISMOA...

ehgida.naiz.eus

